

Kultura

Txintxaun kolektiboak Mary elefantea protagonista duen 'Apustua' obra estreinatuko du, gaur > 12



etxea jantzi



Aniztasun funtzionala dutenen aldeko eguna ospatuko dute Zaldibarren

Durangaldeko bosgarren Ezgaitasun Eguna antolatu du Geu Be elkarteak, biharko. Aurten, Zaldibarren izango da jaia, eta bertako udalaren eta 16 elkar-terren laguntzagaz prestatutako egun osoko egitaraua izango dute gozagai ber- taratzen direnek. Herri bazkarirako, ia bostehun lagunek eskuratu dute au- rrez txartela. > 5

“Durangaldean sortzen diren olio hondakinak erabilia biodiesela ekoitzi daiteke”



Oier Zenigaonaindia | Ingeniaria > 10

DRT, 30 urte egin dituen familia

Durango Rugby Taldeak urteurren jaia ospatuko du zapatuan. Gaur egun DRT den familia zabala ulertzeko, bere sasoiak mugarrak izan ziren erabakiak eta proiektuak gogoratu dituzte protagonistek eurek. > 16-17



ALKIMAX

Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua Industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310
alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net

PRODUKTU BERRIAK!

- MOKETA GARBITZEKOA
- OLIOA ATERATZEKO PONPA
- APLIKAGAILU ELEKTRIKOA

Durango > 3

Feministek kantuan eta dantzan eskatu dute Garateren dimisioa

Iurreta > 4

Aizkora desafioa antolatu dute Goiurian, ekainaren 3rako

Mañaria > 9

Baserrietan etxebizitza berriak egiteko araudia moldatuko dute

Abadiño > 8

Autobideko zarata gutxitzeko panelak eskatu dituzte Gazteluan

Feministek kantuan eta dantzan eskatu dute Garateren dimisioa

Protesta baketsuak soka luzea ekarri du, ordezkari politikoak ika-mikan ibili baitira

DURANGO Markel Onaindia Mugimendu feministako 40 bat lagunek udaleko osoko bilkura eten zuten martitzenean, sexu abusu saiakeragatik salatutako Fran Garate zinegotziaren dimisioa eskatzeko, eta modu kuriosoan egin zuten. Aurpegi maskarak jarrita, bafle batetik musika ipini eta kantuan eta dantzan hasi ziren, *No woman, no cry* ezagunaren bertsio bat eginez. Jarraian, Garate eta beste hainbat zinegotzi aretotik irten ziren, eta udal gobernuko arduradunek bilkura bertan behera uztea erabaki zuten. Abestia amaitzean, feministak udaletxetik joan ziren, baina udalak ez zion berriro ekin batzarrari. Protesta baketsuak soka luzea ekarri du, ordezkari politikoak ika-mikan ibili baitira.

Garateren aurkako salaketa artxibatu egin zuen epaileak, baina emakumeak errekurritu

eta gero, prozesu judiziala hasi ala ez erabaki behar du orain. Bitartean, udalbatzarrak dimittitzeko eskatu zion martxoan. Gobernuko EAJ eta PSE-EE abstenitu egin ziren egun horretan, eta PPko kideari liberazioa kentzeko mozioan kontra boz-

Udal gobernuko arduradunek bilkura bertan behera uztea erabaki zuten

katu zuten. Horregatik, feministak alderdi biei ere zuzendu zitzaizkien abestiagaz, eta gero ohar bidez ere bai. “Programa politikoetan berdintasuna sustuki aldarrikatu eta eraso matxisten kontra udal kanpainak dinamizatzen dituzten horiek, adierazitakoa irmoki bete or-



Zenbait herritar dantzan, bilkura aretoan, martitzenean.

dez, isilik geratzen dira”, salatu zuten oharrean feministek.

“Iraganeko jarrerak”

Aitziber Irigoras alkateak komunikatua argitaratu zuen ordu gutxira, eta protesta egileak zein oposiziokoak kritikatu zituen, “errespetu eta konpromiso falta” egotziz. “Iraganeko jarrerak ekartzen dizkigute go-

gora. Beldurrezko eta indarke-riazko iragan bat, aspaldi atzean gelditu behar zena. Ematen du batzuei gure herrian demokraziaren normalizazioan bide luzea gelditzen zaiela”, adierazi zuen alkateak.

EH Bilduren ustez, “onartezina” da iraganagaz konparaketa hori egitea, eta herritarrek bilkuran euren iritzia emateko

eskubidea dutela dio. Irigorasi “haur haserretu baten jarrera” izatea leporatu, eta bilkuragaz jarraitu ahal zela dio.

Herriaren Eskubideak esan du “demokrazia adierazpen askatasuna” ere badela. “Indarke-ria matxistaren mailako arazo bat ondo gestionatzen ez badugu, herritarrek erreklamatzeko eskubidea daukate”.




Adrián Alonso Meis (Atxondo)

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

www.mondragon.edu/gmhz



Zergatik aukeratu zenuten Mekatronika Industrialeko heziketa zikloa egitea? Eta, zergatik Mondragon Goi Eskola Politeknikoan?

Txikitatik asko gustatu zait mekanika eta ziklo honek mekanika eta elektrizitatea batera ikasteko aukera ematen zidan. Gainera enpresek asko eskatzen duten profila osatzen du MGEPEk.

MGEP aukeratu nuen duen ezagutzearengatik eta bertan ikasi zuten lagun batzuen gomendioengatik.

Heziketa ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue, hau da, ekipo-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue.

Erronka pila bat egin ditugu. Lehenengo oinarriak jasotzen ditugu, eta ondoren, industriako aplikazio errealek simulatzen zituzten panel, zirkuitu elektrikoak naiz elektropneumatikoak PLC batzuen bitartez kontrolatuak diseinatzen, muntatzen eta martxan jartzen hasten gara. Kurtsoa aurrera joan ahala, erronken zailtasunak gora egiten du, bigarren kurtsoa ia erabat praktikoa bihurtuz praktika naiz erronkak garatuz.

Zer nolako erronkak egin dituzue?

Lehen urtean egin genituen erronka batzuk hauek izan dira: ebkebizitza bateko garajeko ateen kontrola bideratzen duen panel elektriko baten muntaketa profesionala. Industria linea bateko material desberdinak saikatzeko eta biltegratzeko sistema automatiko baten automataren programazioa egin genuen eta azken hilabeteko erronka nagusia, igogailu elektriko baten muntaketa, martxan jartzea eta akatsen konponketa bideratu genuen, atal mekanikoa eta elektrikoak garatuz.

Bigarren urtean berriz, hainbat teknologietan oinarritutako sistema automatizatuak integratu ditugu, automatik, hidraulika proportzionala eta sare industrialak erabiliz: garbigailu baten kontrol automatikoa, eguzki panelen kontrola eta sistema mekaniko desberdinen muntaketa -desmuntaketa. Hala ere, azpimarratuko nuke industrian azaltzen diren hainbat makina errealek muntaketa, desmuntaketa eta martxan jartzea izan direla erronka nagusiak.

Nola baloratzen duzu esperientzia?

Nire partetik esango nuke, MGEPEko esperientzia asko gustatu zaidala eta motibazioa duen edozeini gomendatuko niokeela, benetan disfrutatuko duela bertako lan egiteko erarekin. Gauza asko ikasi dudala ikusi dut eta hori guztia, 9 hilabetetan. Honen guztiaren erua irakasteko metodologian dagoela esango nuke, etengabe erronka desberdinak egiten egon garela, sortzen ziren galdera guztiak irakasleon eta ikasleon artean erantzun izan ditugulako, talde lanean lan egiten ikasiz. Eta uste dut, ikasteko era egokienetarako bat izan dela.

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Mekatronika Industrialak

Ate Irekiak

Maiatzak 27 11:00

Aizkora desafioa antolatu dute Goiurian, ekainaren 3rako

Aita San Migel plazatik Goiuria auzora korrika igo ostean, kanaerdiko enbor bi moztu beharko dituzte Mikelats Goiriak eta Eneko Bikandik



Orozketan egindako desafioa amaituta bota zuen Goiriak berea, eta Bikandik onartu egin zuen. Iñaki Esteban Garitaonandia.

IURRETA Aitziber Basauri Iurretako Aita San Migel plazatik Goiuriara korrika igo ostean, kanaerdiko bi mozteak. Erronka hori bete beharko dute Mikelats Goiriak (Durango, 1988) eta Eneko Bikandik (Iurreta, 1995), ekainaren 3an. Plazan egin dute hitzordua, 19:00etan. Irabazten duenak 600 euro poltikoratu dute.

Biek ala biek argi dute helburua: "Iana amaitzea, kosta ahala kosta. Norberaren duintasunarengatik bada ere", dio Goiriak. Bat dator Bikandi ere. "Desafioa amaitzea da helburua, horretarako denbora asko behar badut ere". Joan zen martxoan ere desafioa egin zuten Orozketan. Aritz Baraiazarra eta Xabier Olaskoaga aritu ziren orduan. Han sortutako giroak "berotuta", desafioa bota zuen Goiriak, eta Bikandik baino ez zion heldu erronkari.

"Desafio hura ikustean, berotu, eta neuri ere halako zerbait egiteko gogo sartu zitzaidan", dio Goiriak. "Enekok baino ez zuen onartu desafioa". Bikan-

dik gaineratu duenez, "lagunarteko giroak horretara animatu ninduen".

Erronkarako prestatzen

Ez bata ez besteak ez dute egin prestaketa berezirik aizkora

Bikandi: "Desafioa amaitzea da helburua, horretarako denbora asko behar badut ere"

Goiuria: "Desafio hura ikustean, berotu, eta neuri ere halako zerbait egiteko gogo sartu zitzaidan"

desafioari aurre egiteko. Hala onartu dute. "Zerbait entrenatzen ari naiz, apurka-apurka, egunean bertan indarrik barik gelditu ez nadin. Aizkora ez dut hartu oraindik". Bikandik ere

etxeko egurra mozteko baino ez du erabiltzen aizkora, onartu duenez. Gaineratu du are gogorragoa dela korrika egin ostean aritzea aizkoran. "Hankak nekatuago izango ditugu, eta gogorragoa egingo zaigu enborra mozteak".

Gaztetasuna vs indarra

Faboritua zein den galdetuta, Goiriak uste du Bikandiren gaztetasunak haren alde egiten duela. Hala ere, Goiriaren indarrak izango duela eraginik nabarmendu du Bikandik. Ikusmina sortu du erronkak. "Nahiko zabaldu da aizkora desafioa izango dugula, eta etorri izan zaizkit ea prestatu naizen edo nola nagoen galdetzeraz", Goiriak azaldu duenez.

Parte-hartzaile bakoitzak 300 euro jarri ditu aizkora desafioa egiteko, eta irabazleak aurkariarenak bereganatu ditu. Astebete dute Mikelats Goiriak eta Eneko Bikandik desafioko prestatzeko. Damurik ez dute erronka bota eta hartu izanaz, baina ezin ukatu urduritasuna.

Erramun Martikorena Andikoako Asentzio jaietan

Zapatu iluntzean emango diote hasiera jaiei

BERRIZ M.Z.

Zapatu iluntzean Donien Atxa jasota hasiko dituzte Asentzio jaiek Berrizko Andikoa auzoan. Behin jaiei hasiera emanda, Erramun Martikorenak kontzertua eskainiko du 20:00etan, Santutegian.

Domekarako egun osoko egitaraua antolatu dute Andikoan. 10:00etan ganadu erakusketa egingo dute, eta 11:00etan meza nagusia izango da. 11:45ean Iremiñe taldeko dantzariak dantza saioa eskainiko dute.

Dantza saioaren ostean, bertso eskolako gazteen saioa egingo da, eta auzoko artalde batez transhumantzia txikia egingo dute. Arratsaldean, umeentzako jolasak egingo dira, eta Mirari eta Lutxurdio trikitilarien eskutik, erromeria. 20:00etan, berriz, bola-joko txapelketa hasiko da. Parte hartu gura duenak 3 euro ordaindu beharko du izena-ematerakoan.

Jaiei amaiera emateko, ekainaren 3an auzo afaria egingo dute, bertsolari eta trikitilariekin.



Erramun Martikorenaren kontzertua 20:00etan hasiko da. EKE.

Auzoak lotuko dituzte presoan eskubideen alde

BERRIZ M. Zuazubiskar

Bosgarren urtez presoan eskubideen aldeko martxa antolatu du Oka auzo elkarteak. Ohitura bilakatu den lez, herriko hainbat auzo zeharkatuko dituzte presoan eskubideen alde zapatuan. Olakuetan hasi eta bukatuko den ibilbideak 15 kilometro inguru izango ditu, eta 8:30ean irtengo dira.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, martxan parte hartzen dutenek hamaiketako izango dute Andikoara heltzen direnean.

Silvia Biellak irabazi du kartel lehiaketa

BERRIZ M. Zuazubiskar

Silvia Biella berriztarrak bigarren urtez jarraian irabazi du Berrizko jaietako kartel lehiaketa. Zortzi lan aurkeztu dira lehiaketan, eta Biellaren 'Gozatu jaiak' izan da irabazlea. Herritarrek boto bidez hiru kartel aukeratu ostean, epaimahaiak izan du azken hitza, eta hauek berriztarraren lana aukeratu dute.

Berrizko Udalak jakitera eman duenez, sari banaketa San Pedro eta Santa Isabel jaietan egingo dute.

<p>LANBIDE HEZIKETA</p> <p>GIZARTERATZEA Goi Mailako Zikloa</p> <p>ADMINISTRAZIOKO eta FINANTZETAKO Goi Mailako Teknikari Zikloa</p> <p>> Euskaraz eta ingelesez</p>	<p>Orue eskola</p> <p>2017-2018 IKASTURTEA</p> <p>AURREMATRIKULA EPEA ZABALIK!</p> <p>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO</p> <p>Tel. 946 300 058 · www.orueeskola.org</p>	<p>Psikomotrizitateko GRADUONDOKOA</p> <p>Kreditu kopurua: 30 ECTS = 750 ardu</p> <p>IL3-Barzelonako Unibertsitateak igorritako titulua</p> <p>Institut de Formació Continua-IL3 UNIVERSITAT DE BARCELONA</p> <p>ORUE ESKOLA - San Miguel de Dueda, s/n - 48340 AMOREBIETA-ETXANO</p>
--	--	--

ZALDIBAR Itsaso Esteban Zaldibarko Udalaren eta herriko hamasei elkarteren laguntzagaz antolatu du Geu Be Elkarteak maiatzaren 27ko Ezgaitasun Eguna. Aniztasun funtzionala duten pertsonen errealitatea gizarteratuko dute egun osoan Zaldibarren egingo dituzten askotariko ekintzen bitartez.

Biharko prestatu duten jaiagaz bat egin, eta "berdintasunean eta errespetuan oinarrituz lagun berriak egitera" gonbidatu dituzte antolatzaileek eskualdeko herritar guztiak.

Zaldibarko Udalaren eta herriko 16 elkarteren laguntzagaz antolatu du Geu Bek biharko jaiak

Astelehenean egin zuten agerraldian, Arantza Baigorri alkathea oso pozik agertu zen Geu Be Elkarteak antolatzen duen Ezgaitasun Eguna Zaldibarren os-

Ia 500 lagun elkartuko dira Geu Bek biharko antolatu duen bazkarian

Aniztasun funtzionala duten pertsonen errealitatea gizarteratuko dute



Geu Beko kideek, udaleko ordezkariak, eta Txintxaur eta Helmuga elkarteko kideek egin zuten egunaren aurkezpena.

patuko dutelako aurten: "Hainbat urtez eskatu diogu Geu Beri jai hori Zaldibarren antolatzea,

izan ere, herritarrentzat gauza oso aberasgarria dela uste baitugu". Baigorriren ustez, "Geu

Beko kideen errealitatea ezagutzeko eta gure herria hobetzeko aukera" da biharko hitzordua.

Jon Guerrero, Saioa Ortiz eta Aitor Alberdi Geu Beko kideek eman zuten, asteleheneko prentsurrekoan, biharko egitarauaren berri. Azaldu zuten, Geu Be taldearen eta Zalduren arteko futbol partiduagaz hasiko dute eguna, 09:30ean, eta Txintxaur aisialdi taldekoen eskutik umeentzako tailerrak eta jolasak izango dira, 11:00etan.

Geu Be taldearen eta Zalduren arteko futbol partiduagaz hasiko dute eguna, 09:30ean

Bazkal aurretik, 13:00etan, askotariko dantzen emanaldia izango da ikusgai, eta, 14:30ean, ia 500 lagun elkartuko dira bazkari herrikoian.

Durungaldeko Ezgaitasun Egunaren bosgarren edizioa izango da biharkoa. Aurrekoak Abadiñon, Elorrion, Iurretan eta Berrizen egin zituzten.

Mendi martxa eta erromeria, asteburuko proposamenak

Asteazken hitzaldi bi antolatuko dituzte

MALLABIA J.D.

Mallabiko kultur hamabostaldiaren barruan, hainbat ekintza antolatuko dituzte datozen egunetan. Esaterako, Gazte Alai dantza taldeak saioa eskainiko du gaur, 16:30ean, plazan.

Zapatua gazteentzako mendi martxagaz hasiko dute. Guraso elkarteak antolatuta, 10:00etan irtengo dira plazatik. Bitartean, Mallabia Kirol Elkarteak futbito txapelketa antolatuko du pilotalekuan. Eguerdian baz-

kari autogestionatua eskainiko du guraso elkarteak, eta eguna Kantu Kolore taldearen erromeriagaz agurtuko dute, 19:00etan.

Martitzenean, 16:30ean, adinean aurrera joan arren osasunari eusteko gakoak emango ditu Eneko Mallagaray fisioterapeutak, jubiletxean. Eguenean, berriz, Mallabiko anfibio eta narrastia izango dituzte berbagai Ander Izagirrek (Aranzadi) eta Juan Carlos Andresek Kontzejuzarren, 19:00etan.

Santa Agedako taberna kudeatzeko aukera

Maiatza amaitu arteko epea dute interesatuek

IZURTZA J.D.

Izurtzan San Ageda eguna ospatzen dute, urtero, izen bereko ermitaren bueltan. Herriko jai nagusien barruan izaten da, eta aurten irailaren 3an ospatuko dute. Mezaren ostean dantza saioa egoten da, eta baita bertso-lariak ere. Ermitaren inguruan jan-edaneko taberna bat jartzeko aukera eskaintzen du udalak. Aurten, taberna hori eramateko interesa dutenek maiatza amai-

tu arteko epea dute udalean jakinarazteko. Iaz, esaterako, Durungaldeko Angelman Sindromea elkarteko kideek kudeatu zuten taberna.

Aurten irailaren 3an ospatuko duten jaietan taberna kudeatzeko aukera dute interesatuek










INGELESA

UDAKO IKASTAROAK

eskola-urte bat hilabete batean

ELKARRIZKETA

AZTERKETAK

prestaketa eta errekupeazioa

Talde txikiak





Murueta Torre, 5A behea DURANGO

Tel.: 94 681 56 77

pyms@pymsidiomas.com

www.pymsidiomas.com

Irakasleek greba egin dute berriro, lan baldintzen harira

Dagoeneko, aurtengo hirugarren greba eguna izan da martitzenekoa



Durangoako institutuan elkarretaratzea egin zuten goizean grebalariek.

DURANGALDEA M. O.

Martitzenean greba egin zuten berriro Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko hainbat irakasleek, euren lan baldintzak hobetzearen alde. Dagoeneko, aurtengo hirugarren protesta eguna izan da; joan zen astean ere izan zen greba egun bat. Unibertsitatez kanpoko eremu publikoetan deitu zuten geldialdira ELA, LAB eta STEILAS sindikatuek, eta Durangaldean ere eduki zuen eragina. Durango Fray Juan Zumarraga institutuan, esaterako, grebagaz batera elkarretaratzean ere batu ziren goizean hainbat irakasle. Esku-orriak banatu zituzten euren eskari nagusiak azaltzeko.

Irakasleek diote azken urteetan murrizketak jasan dituztela gobernuen partetik, eta horri buelta ematea gura dute. Irakasleak gaixotzen direnean, ordezkapenak lehen egunetik betetzea eskatu dute; zenbait kasutan ordezkapenak bost egun atzeratzen direla salatu dute. Errebalida zuzentzera joaten

diren irakasleen hutsuneak betetzea ere gura dute. 2009tik hona erkidegoan 894 gela gutxiago daudela diote, eta, horregatik, ikasleen ratioak %10 murriztea proposatu dute.

Gainera, behargin kopurua handituz gero, hezkuntza proiektuak garatzea erraztuko litzatekeela uste dute. Beharginen %40 behin-behinekotasunean daudela ere kritikatu dute irakasleek.

Irakasleak gaixotzen direnean, ordezkapenak lehen egunetik betetzea eskatu dute

Inbertsioa, %6ra igotzea

Bestalde, LOMCE eta Heziberri indargabetzearen alde agertu dira protesta egin dutenak. Hezkuntza publikoko inbertsioa %6ra igotzea gura dute, Europar Batasuneko batez bestekoagaz parekatzeko.



Etorkizuneko Lan-Erronkeei Erantzuteko

ESKAINZA EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ

ESKAINZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industriala

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ESKAINZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Soldadura eta Galdaragintza

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Etengabeko prestakuntza (Hobetuz)
- Langabetuentzako prestakuntza (Lanbide Ikastaroak)

DATAK

Aurrematrikula
ekainaren 5etik 16ra

Matrikula
uztailaren 13tik 19ra

Tel: 94 673 02 51
e-mail: info@fpzornotza.com
www.fpzornotza.com





Ik4-Azterlanek sarri antolatzen ditu mintegiak.

Metal urtzeaz berba egingo dute foroan

IK4-Azterlanek eta Tabira galdategi institutuak nazioarteko foroa antolatuko dute ekainean

DURANGALDEA M. O.

Ekainaren 7an eta 8an metal urtzearen edo galdaketa industriaren inguruko nazioarteko foroa antolatuko dute Ik4-Azterlan zentro teknologikoak eta Tabira galdategien institutuak. Topaketaren dimentsioa ikusita, Barakaldoko BEC erakustazokako auditorioan batuko dira. Amankomunazgoak, Durangaldeko Enpresarien Elkar-teak eta Ik4-Azterlanek duten elkarlanari esker, eskualdeko sektore industrialaren lehia-kortasuna sustatzen dute, eta foro hau ere babesten dute norabide horretan.

BECeko topaketan, “gара-pen teknologikoa eta berrikuntza giltzarri dituen sektore dinamiko honi eratorritako

erronka teknologikoak landuko dira”, Amankomunazgoko arduradunek azaldu dutenez. Nazioarteko adituez gainera, Ik4-Azterlaneko kide batzuek berbaldiak eskainiko dituzte, baita eskualdeko zenbait en-

Eskualdeko sektore industrialaren lehia-kortasuna sustatzen dute

presatako ordezkariak ere. Hemendik aste bira garatuko den konferentzian parte hartu gura dutenek, jjgonzalez@iftabira.org helbidera idatzita eman dezakete izena.



Mañariko bonbardaketaren irudia. Gerediaga elkarteko artxiboa.



Elias Euba lekuko zornotzarra, zapatuan, lore eskaintza egiten.

1937ko maiatza: Durangaldea frankisten esku geratu zenekoa

80 urte bete dira Zornotzako eta Mañariko erresistentziak jausi zirenetik

DURANGALDEA M. O.

Kolpistek eragindako Gerra Zibilak hainbat etapa izan zituen, eta esanguratsuetako bat 1937ko maiatzekoa izan zen, Durangaldea frankisten esku geratu zenekoa. Egunotan 80 urte bete dira bertako azken erresistentzia jausi zenetik. Mañaria eta

Zornotza izan ziren errepublikarren menpeko eskualdeko azken herriak.

Apirilean Durango eta Iurreta menderatu ostean, frankistek Gernika eta Bermeorantz jo zituzten erasoaldiak, eta Eusko Jaurlaritzak defentsa lerro bat ezartzea erabaki zuen Maña-

rian, Saibigainen, Zornotzan eta Arratian, Jon Irazabal ikerlariak *Gerra Zibila Durangaldean* liburuan kontatzen duenez. Baina, egun gutxira, Mola jeneralaren agindupekoek ofentsibari ekin zioten suaren bidez; maiatzaren 14an eta 16an bonba su-eragileak bota zituzten Zor-

notzan, eta 23an gauza bera egin zuten Mañarian eta Izurtzan. Eskubaratzetik behera sartuta, kolpisten esku geratu ziren herriak.

Elias Eubaren loreak

Gertakari horiek eta Gerra Zibilean hildakoak oroitzeko asmoz, ekitaldia egin zuten Zornotzan joan zen zapatuan, Zornoza elkartearen eskutik eta udalaren laguntzaz. Bertan, gerraren lekuko izan zen Elias Eubak egin zuen lore eskaintza. Durangoko bonbardaketa bere begiekin

ikusitakoak, Montorrako base berrian behiak zaintzen zegoela. Gerrak aurrera egin ahala eta Francoren aldekoak herrian sartu aurretik, Artzentalesera ihes egin zuen 16 urte gaz, abere eta guzti. Erasoaldia pasatuta bueltatu zen herrira, eta Boroa ingurutik dena erreta ikusi zuela gogoratzen du. Anaia zaharra, Simon Bolivar batailoiko gudaria, zaurituta zegoen; beste anaia eta osaba bat langile batailoietarako hartuak. Bizitza berri bati ekin behar izan zioten, frankisten mendean.

Pintxorik onenak etzira arte dastagai

Domeka arratsaldean sari banaketa egingo dute



Aurten 32 establezimenduk parte hartzen dute lehiaketan.

ZORNOTZA J.D.

Jan-Alai pintxo lehiaketa eguaztenean hasi zuten, eta domekako 15:00 arte irauango du. Aurten goizko aldia 32 establezimenduk parte hartzen dute, nork bere pintxoagaz. Herritarrek pintxorik onena zein den aukeratu dezakete. Gune bakoitzeko hiru pintxo dastatu behar dituzte gutxienez, gero euren botoa eman ahal izateko.

Domekan, 20:00etan, sari banaketa ekitaldia egingo dute, Zornotzako Zelaieta Zentroko auditorioan. Adituek osatutako epaimahaiak irabazle bat aukeratu du, eta herritarren botoek erabakiko dute bestea. Zerbitzaririk onenaren izena eta hamar pintxorik onenen zerrenda ere jakinaraziko dituzte ekitaldi berean.

AKT Plasticos-eko lan baldintzak salatu dituzte

Batzordeak “zigorrak kentzeko” eta lan kargak “egokiro kudeatzeko” eskatu dio zuzendaritzari

ZORNOTZA J.D.

Zuzendaritzak langileei “lan-jazarpena” egiten diela salatu du AKT Plásticos enpresako langileen batzordeak ohar batean. Enpresak jartzen dituen zigorrak ere salatu dituzte. “Eguzkeraren ostean dituzte zigorrak, eta epaitegian galdu egiten badu ere, zuzendaritzak etengabe zigortzen ditu beheko mailetan dauden lan taldeak”, batzordearen esanetan. Horregaz batera, “lan-karga izugarriak” daudela

diote. Egoera horiek salatzeko, kontzentrazioa egin zuten joan zen astean.

Zuzendaritzak ohar batean jakinarazi duenez, “ez gaude langileen batzordearen xantxia onartzeko prest”. Gaur egun laneko jazarpenaren arloko “hainbat zigor daude”, zuzendaritzaren esanetan. “Horietako bat epaitua izan da eta lan-arloko epaitegiak zigorra ezarri dio lankide bati 400 mezu eta WhatsApp bidaltzeagatik”.

Euskara ahoan,... etxean eta kanpoan

Garaiko udalekuak 2017

Uztailaren 31tik 21era
3 urtetik 12 urtera

IZEN EMATEA UDALETXEAN
maiatzaren 15etik 31ra

izabela.garai@bizkaia.org
Tel.: 946 816 393
Faxa: 946 201 172

GARAIO ELIZATEKO UDALA

MATRIKULAK

Erroldatuak: 50€
2. seme-alaba: 40€
3. seme-alabatik aurrera: 10€

Ez erroldatuak: 80€
2. seme-alaba: 70€
3. seme-alabatik aurrera: 60€

ORDUTEGIA

Astelehenetik-barikura
09:00 / 13:00

Txangoak
09:00 / 17:00

ATXONDOKO UDAL IGERILEKUETAKO TABERNA KUDEATZEKO LEHIAKETA ZABALIK

IRAGARKIA

Ordaindu beharreko gutxienezko errenta:
uda osorako 200€
Eskaintzak aurkezteko azkeneko eguna: ekainak 2.
Argibide gehiago udal bulegoetan
eta www.atxondo.eus orrian.

Atxondo, 2017ko maiatzaren 26a

Kirol instalazioak hobetzeko lanean dabilta Elorrion

Herri Ikastetxe eta Institutuko jolasgunearen ateak zabalik daude asteburu eta jaiegunetan

ELORRIO M.Zuazubiskar
Kirolak duen garrantzia kontuan hartuta, eta elorriaren kirol jarduera sustatzeko asmoz, herriko kirol instalazioak hobetzeko lanean dabilta Elorrion. Esaterako, dagoeneko San Jose parkeko frontoia konpondu dute, bertako horma eta lerroak margotuta.

Bestalde, datozen asteetan eskalada horman eta Eleizaldeko futbol-zelaian konponketak egingo dituztela jakinarazi du Elorrioko Udalak. Eskalada hormako instalazioetan pre-

bentziozko lanak egin, eta han dagoen material guztia aztertu dute. Horrez gain, hormako egituraren egon daitezkeen arazoak aztertu eta bertako panelak margotuko dituztela adierazi du Elorrioko Udalak, ohar bidez.

Eleizaldeko futbol-zelaiari dagokionez, aurreko udan aldatutako zelai artifizialagaz izandako zenbait arazori konponbidea jarriko diotela jakitera eman dute. Orain egingo dituzten lanak zelaia aldatu zuen enpresak egingo ditu, inolako kostu gehigarriarik barik.



Hainbat kirol instalaziotan dabilta egiten hobekuntzak.

Bestalde, Eleizaldeko aldegeletan asteburuetan sortzen den leku faltari aurre egiteko, udalak eta BPXport Kirol Zerbitzuak enpresa akordio batera heldu direla jakitera eman dute. Hortaz, futbol-zelaiako jokalariek udako igerilekuetako aldagelak erabiltzeko aukera izango dute.

Jolasgunea, zabalik

Udalak eta Herri Ikastetxe eta Institutuak hartutako neurriaren ondorioz, elorriarrek eskolako jolasgunean dauden kirol instalazioak erabili ditzakete duela bi asteburutik, asteburu zein jaiegunetan, 10:00etatik 20:00etara bitartean.

Txus Arrieta zinegotziaren hitzetan, Elorrioko kirolzale askok aspalditik aldarrikatzen zuten lortu dute, eta, horregatik, eskerrak eman gura dizkiete eskolako zuzendaritzakoei. Bestalde, hartutako erabakia jokaldi "burutsua" izan dela adierazi du Dani Palacios kirol zinegotziak.

Autobideko zarata gutxitzeko, panel gehiago ipiniko dituzte Gazteluan

Gazteluko tunelaren sarrerako zaratagatik kexa aurkeztu zuten auzotarrek

ABADIÑO I.E.
Bizilekua Gerediaga-Elorrio autobideko Gaztelua auzoko tunelaren sarreratik gertu duten auzokide batzuen eskariz, errepideko zarata gutxitzeko panel akustiko gehiago ipiniko ditue-

la iragarri du Bizkaiko Foru Aldundiak. Aldundiak baieztatu du ekainean egingo dituztela panel akustikoak hamar metro gehiagoz luzatzeko lanak.

Eraiki zutenetik, errepideak zaratari dagokion legea bete-

tzen duela nabarmendu du, edonola ere, Aldundiak. "Orain arte egindako neurketetan inguru horretako zaratek ez dute legez ezarritako muga gainditu", diote Ekonomi eta lurralde garapena sustatzeko Aldundiaren

saileko arduradunek. "Baina egoera are gehiago hobetzeko eta inguru horretako kalitate akustikoa ahalik eta gehien hobetzeko" hartuko dituztela aipatutako neurri horiek esan dute.

Errepidetik gertu dauden eraikinak zaratatik babesteko neurriak errepidea eraiki zutenetik daude Gerediaga-Elorrio tartean, eta Aldundiak nabarmendu duenez, "baieztatu daiteke pantaila akustikoen ondo betetzen dutela beraien funtzioa".

Oihandik eta beste abesbatza bik kontzertua eskainiko dute

OTXANDIO J.D.
Zornotzako eta Ermuako abesbatza banak eta Otxandioko Oihandik Udaberriko Kontzertua eskainiko dute zapa-tuan, 20:00etan, Otxandioko

Abesbatza bakoitzak bost abesti eskainiko ditu; azkenean Agur Jaunak kantatuko dute elkarregaz

elizan. Sarrera doakoa da, eta abesbatza bakoitzak bost abesti eskainiko ditu. Euskaraz Boga Boga abestiak eta latinez Verdiren konposizioek osatu dute, besteak beste, emanaldiko errepertorioa. Azkenean abesbatzak denek Agur Jaunak abestuko dute elkarregaz.



Udalean zein Aldundian, errepideko zarataren inguruko kexak aurkeztu dituzte auzotarrek.

R.P.S. 214/06
A. Urreta podólogo

Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ **MAPFRE**

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

hitz **#gomendioak**
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitziburudenda.com

HELQUENTZAT
MENDEBALEKO
EUSKARA
Koldo Zuazo
2017

UME ETA GAZTEENTZAT
BASOKO LIBURU
HANDIA
Mack
2017

MUSIKA
AFRIKA REKK
Youssou Ndour
2016

Baserrietan etxebizitza berriak egiteko araudia moldatuko dute

Gazteak auzoetatik joatea ekidin gura dute, bizilekua egiteko aukera eskainiz



Gaur egun 64 baserri daude Mañariko herrigune eta auzoetan banatuta.

MAÑARIA J.Derteano

Azken urteetan aldatu egin da baserrien erabilera. Esaterako, sasoi batean ohikoa zen abereak izatea, eta, beraz, kortak beharrezkoak ziren. Belaunaldi berriengan gero eta gutxiago dira horrelako bizimoduaren aldeko hautua egiten dutenak, eta baserriko gune batzuek erabilgarritasuna galdu dute. Garai berrietara egokituz, gune huts horietan etxebizitzak egiteko aukera eman gura du udalak, horretarako eman behar diren urratsak emanda. Udaleko inbentarioaren arabera, 64 baserri daude Mañarian.

Gaur egun, gaitza da baserri batean bigarren etxebizitza bat egitea. Horrela, belaunaldi berriek baserrietik eta herrietik kanpora bilatzen dituzte bizilekuak. Ondorioz, “auzoak apurka-apurka jende gaztez hustuzen ari dira”, dio Endika Jaio alkateak. “Egoera horri buelta emateko aukera bat etxebizitzak

“Auzoak apurka-apurka jende gaztez hustutzen ari dira”, Endika Jaio alkatearen esanetan

ateratzeko aukera eskaintzea da, eta gazteek, kanpora joan aurretik, gutxienez aukera hori hausnartu dezatela”, gehitu du.

Urte eta erdi barru, prest
Helburua posible egiteko, arau subsidiarioen aldaketa bat egin behar da. Oraintsu, udalak esleipen prozedura abiatu du lan hori aurrera eramango duen enpresa aukeratzeko. Prozedurak ingurumen arloko ikerketa eta Aldundiaren onarpena beharko ditu, besteak beste. “Prozedura osoa amaitu aurretik urtebete edo urtebete eta erdi inguru joango da”, aurreikusitako du Jaio.

Igerilekuko tabernarako kudeatzaile bila

ATXONDO M.Z.

Atxondoko igerilekuko taberna esleitzeko lehiaketa bi astez luzatu du udalak. Udalak jakitera eman duenez, esleipena bainu denboraldi baterako egingo da, eta beste denboraldi bat luzatzeko aukera izango dute. Gainera, denboraldiko prezioa 300 eurotik 200 eurora jaitsi dutela jakitera eman dute. Interesatuta daudenek udal bulegoetan eta udalaren webgunean eskuratu ditzakete eskaintza egiteko orriak, ekainaren 2ra bitartean.

Sagardo Egunak 140 lagun batu ditu Garain

GARAI M.O.

Joan zen zapatuan II. Sagardo Eguna ospatu zuten Garain, eta arrakasta eduki zuen ekimena. Izan ere, 140 lagunetik gora batu ziren Trumoitte kultur elkartearen deialdira. Horiek guztiek edalontzia erosi zuten, bost eurotan, eta, trukean, Okiltxiki eta Zezpala sagardoak gura beste edan ahal izan zituzten. Gainera, jatekoa ere eskaini zuten antolatzaileek. Dj Bullek ipinitako musikagaz girotu zuten ospakizuna.

SEI HANKAKO MAHAIA

PILAR RIOS RAMOS
PSE-EE



Auzoek eratzten dute herriaren nortasuna

Orain dela egun gutxi inauguratu genituen San Fausto auzoko obrak. Udalak inbertsio handia egin du obra horietan, auzoaren irudia eta bizi-kalitatea hobetu nahian. Obra horien bidez, argi eta garbi utzi nahi izan dugu auzoak erdigunea bezain garrantzitsuak direla. Hainbat bilera egin ditugu eta zuzenean jardun gara egin beharreko ukituak eta hobekuntzak zein diren jakiteko; eta aurki egingo dira.

Auzoak garrantzi handikoak dira, nortasuna ematen baitiete herriari. Gainera, sarritan, auzoetan, garrantzitsuagoa izaten da komunitatearen indarra, handiagoa mugimendua eta nabarmenagoa nortasuna.

Udalekoek ospakizun-jai bat egin nahi genuen auzoan bertan; elkartei jakinarazi genien, eta atsegin handiz hartu zuten. San Faustoko Gizarte Etxea eta Gure San Fausto Berria arduratu dira inskripzioak biltzeaz.

Ziur gaude jai hau lagun-garria izango dela auzoaren artean dauden loturak, berez aski estuak direnak, areago estutzeko. Ahaztu gabe denon artean partekatutako gozamenak, denok baitugu gustuko hori.

Hurrengo Aramotzen txanda izango da. Urtebete eman dugu auzoekin bilerak egiten, eta bilera teknikoak ere bai, Durangon hain garrantzitsuak den auzo hau eraberritzeko; eta aurrerantzean ere lanean jarraituko dugu gure udalerriko bizi-kalitatea hobetzeko.

DURANGALDEA ASTEON

Eskoziako folk musika entzuteko aukera

IURRETA > Eskoziako eta Euskal Herriko kulturek bat egingo dute, zapatuan, Iurretako Askondo kalean. 18:00etan euskal dantzak ikusteko aukera egongo da eta, 19:00etan, Eskoziako folk musika talde batek emanaldia eskainiko du. Azkenik, 21:30ean, trikipoteoa egingo dute Iurretako kaleetatik.

‘Emakumeak Afganistan’ erakusketa Durangon

DURANGO > 2009. eta 2014. urteen artean Afganistanen ateratako argazkiekin emakumeek gizarte hartan bizi duten egoera salatu eta bistaratu gura dute Gervasio Sanchezek eta Monica Bernabek Andragunean ikusgai dagoen erakusketa baten bidez. Ekainaren 3ra arte egongo da ikusgai.

Ume transexualen familien hitzaldiak

ABADIÑO > Ume transexualen familiak biltzen dituen Chrysalis elkarteak hitzaldi bana eskainiko du Zelaian eta Matienan, ume horiek familian eta gizartean nolako laguntza behar duten azaltzeko. Ekainaren 6an Txanportan (euskaraz) eta ekainaren 22an Errotan (gaztelaniaz) izango dira, 17:30etik 19:30era.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoek eta emandako iritzien erantzukizunik.

Ikusezinak

Ikastolako aurtengo antzerki obra Ikusezinen inguruan mintzo da. Ikusten ez direnak, ikusten ez ditugunak, ikusten ez dituztenak. Bada, pribilegiatu bat naiz asko eta asko ikusten ditudalako.

Ikusezinak dira 30-40 gaztez osatutako taldeak entsegu duin bat egin dezan egin beharreko maniobra guztiak, ingeleseko partikularren edo futbol entrenamenduen kontra borroka egitea gerra galdu bat den garai honetan. Goizeko 9etan lanean hasi, eta goizeko ordu bata arte oheratzen ez diren irakasle zein teknikarien atsedean falta ikusezina da. Frontoia umez beteta eta 16:30eko jolastokiko zaratara, entsegua amaitu ezinda etxera buelta burumakur egitea, etapa ezberdinetako irakasleak ados jartzeko egin beharreko esfortzua, konpartsa eta barruko antzerki taldearen arteko liskarrak, mutilek ezpainak pintatzea, edo neskek ikaragarriko abilezia izatea hankapalotan ibiltzen... hori guztia ikusezina da.

Dragoia egiteko Naiarak sartu dituen orduak inork ez ditu ikusten; 40 gaztek Antzokia ondo zaindu dezaten Maitek, Arantzak eta Markelek egindako lana nork ikusi du? Lehenengoz, konpartsa ardurak du Zurinek. Biba Zu(ri)! Eta biba Ikastolako Antzerki Proiektuan sinesten duzuen guztiok, zuen ordutegiak eta plangintza aldatu duzuen ikusezin guztiok (DBHko irakasleak, batez ere zu, Garbi).

Badira ikusten diren lan eta ametsak ere. Ikusten dira Idoiaren esku magikoetatik pasatu diren jantzi ikusgarriak. Ikusten da Amaiak bere tripen barru barrutik egindako lana; ikusten da Txotxek 30 urte luzeren ostean proiektuan sinesten jarraitzen duela (Biba zu, kamarada!) eta ikusten dut izerdi tanta eta negar malko guztiek mezezi dutela, horrelako jendeak duela 30 urte baino gehiago sortu zen proiektu batengatik lanean jarraitzen duen bitartean.

Miren Erdoiza Mujika



Oier Zenigaonaindia Santos | Energia berriztagarrietan ingeniaria | Durango, 1990

“Olio hondakinak erabilia biodiesela ekoiztu daiteke, kudeaketa publikoaren bitartez”

Durungaldeko herrietan erabilitako olioagaz biodiesela egitea proposatzen duen proiektua landu du ingeniari durangarrak

> **BERBAZ** Aitziber Basauri

Durungaldean erabilitako olio batu eta hori biodiesel bihurtzeko proiektua landu du Oier Zenigaonaindia ingeniari gazteak —Kristina Peña izan du zuzendari—, eta ikasketa bukaerarako lana zenagaz aurrera egiteko aukerak ikusten ditu. Egindako kalkuluen arabera, “urtean 300.000 litro olio batuko genituzke Durungaldean, eta 325.000 litro biodiesel lortuko genituzke”. Lodosan bizi da orain dela bi hile.

Auzo eta herrietan erabilitako olioagaz biodiesela egitea. Hori da zuk egindako proposamena. Nola da hori?

Energia-eraginkortasunak eta sortzen dugun zabor kopuruak beti arduratu naute; kontsumitzen dugun guztia optimizatzea nola lortu. Horregaz lotuta, erabilitako olioagaz zerbait egitea pentsatu nuen, hondakin bat denez gero, ahalik eta gehin aprobetxatzeko, eta, ahalik eta hondakin gutxien sortzeko.

Nola ekoiztuko zenuke biodiesel hori?

Ahalik eta oliorik garbiena lortzeko, iragazi egingo genuke. Transesterifikazioa erabiliko genuke gero: olio kate laburreko alkohol batez —etanolagaz edo metanolagaz— nahastuko dugu, eta erreakzioa bizkortzeko, katalizatzaile bat erabiliko dugu. Soda kaustikoa, adibidez. Xaboa egiteko berdin egingo genuke, baina alkohola beharrean ura erabilia.

Hau guztia aurrera eramateko aukera dago Durungaldean?

Hiri hondakin kudeaketa publiko egiten den moduan, zergatik ez planteatu erabilitako olioaren kudeaketa publiko ere? Hasieran, etxean erabilitako olioagaz norberak biodiesela ekoizteko proposamena nintzen lantzeko, baina ez nion zentzurik ikusten. Urtean bost litrorako baino ez ginatke helduko-eta. Gaiari tiraka hasi ginen, eta bideragarria zela ikusi genuen. Durungaldean sortzen diren olio hondakinak erabilia biodiesela ekoizti daiteke,



“**Herri bakoitzak batutako olio kopuruaren arabera jasoko luke biodiesela**”

horretarako kudeaketa publiko erabiliz. Hori da planteatzen duguna.

Biodiesela ekoizteko, olio birziklapen planta sortzea proposatzen duzue proiektuan?

Bai. Mallabienan (Iurreta) pabiloi bat hartzea, eta bertan lauzpabost biltegi jartzea planteatzen dugu; behar dugun erreakzio kimikoa sinplea da. Egindako kalkuluen arabera, urtean, 300.000 litro olio batuko genituzke Durungaldean —Durango, Zornotza, Ermua, Abadiño, Erorrio, Berriz, Iurreta, Zaldibar, Atxondo, Otxandio, Mallabia, Mañaria, Garai eta Izurtza—, eta horregaz 325.000 litro biodiesel lortuko genituzke. Horretarako, 400.000 euroko hasierako inbertsioa aurreikusitako dugu, pa-

bilioia eta furgoneta bat erosteko, eta langile bi kontratatuzko.

Herri handi zein txikietan bideragarria dela uste duzue?

Bai. Helburua proiektuan herri handi eta txikiak sartzea da, eta inbertsioari denen artean aurrera egitea. Halaber, herri bakoitzak batutako olio kopuruaren arabera jasoko luke ekoiztutako biodiesela berriz erabiltzeko. Hondakin kudeaketaren zati batean aurreztuko lukete —ez luketelako kanpoko enpresa bat kontratatu behar—, eta diesel gastuetan ere aurreztuko lukete, gutxiago kontsumituko genukeelako. Gure proiektuan biodiesel litroa 41 zentimoan ekoizten da. Helburua ez da etekinak edo produktu bat lortzeko enpresa bat sortzea.

Diesela ordezkatzeko litzateke biodiesela, ingurumenagaz askoz iraunkorragoa dena.

Hori da. Ordezkatzeko edo osagarri lez erabiltzeko. Kontsumitzen dugun diesel guztia ordezkatzeko nahikoa biodiesel lortzen ez bada ere, zati baterako lain izango dugu behintzat. Horixe da helburua, ingurumena-

“**Herritarren artean harrera ona izatea eta udalak inplikatzeko ezinbestekoa da**”

gaz askoz iraunkorragoa delako, energia berriztagarriak sustatzen direlako eta abar.

Horretarako, ohitura aldaketak eman behar dira?

Maila indibidualean eskuragarri dagoen ala ez da kontua, erosoan zaiguna egiten dugu. Orain urte batzuk modan ipini zen biodiesela, baina gero eta gutxiago entzun eta erabili da. Badauke biodieselean sinesten ez dutenak ere, beraien kotxean biodiesela erabiltzerik ez dagoela diotenak. Gezurra da. Gasolindegietan botatzen dugun dieselak biodiesela ere badu nahastean. Interesak daude atzean.

Udalen eta herritarren konpromisoa ezinbestekoa litzateke? Kudeaketa publiko planteatzen da.

Beraz, herritarren artean harrera ona izatea eta udalak inplikatzeko ezinbestekoa da. Udalek herritarren inplikatu behar dituzte auzolanean aritzera, harri-koskor bat jartzera. Gainera, denon onurarako izango litzateke: aurreztu egingo lukete udalak, eta herritarren onurarako neurriak hartzeko aukerak litzateke, adibidez, zaborren zerga jaitsi. Ekonomia zirkularra bultzatzeko era da.

Mankomunitatera jo duzue. Zelan erantzuna izan duzue?

Interesgarria iruditu zitzaizkion, nahiz eta hutsuneak ikusi. Hala ere, esan ziguten olioaren kudeaketa udal bakoitzak darabil. Durangoko Udalera ere jo dut. Horrek proiektua babes-tuz gero, herri txikiagoak inertziaz batu daitezkeelako. Durungaldeko herri guztiek parte hartzeak proiektuari indarra emango liokeela esango nuke, hondakin gaian sortutako gerra politikoan traba bat gailentzea lortuz. Hainbat koloretako udalak daude eskualdean, eta denek proiektuagaz bat egiteak beste toki batzuetan ere bideragarri izatea erraztuko luke.

etxeajantzi

ANBOTOKO DEKORAZIO
GEHIGARRIA 2017

anboto
komunikabideak



ARGIZTAPENA

EGONGELA

LOGELA

PINTURA

SUKALDEAK

UMEEN LOGELA

grupo
anuebladora
mondragonesa

1956-2016
60
URTE
ESKERRIK ASKO !!

ZERKAOSTETA 3
TEL.: 943 71 10 11



ARRASATE

centro hogar MUEBLES

sofa
leku

ZIGARROLA 1
TEL.: 943 79 15 03

koltxoi
leku



ARGIZTAPENA**Sabaiko lanparak
edozein espaziotan**

Sabaiko lanparek edozein espazio bikain apain dezakete. Horrez gain, argia zentratzeko ere balio dute. Egongela batean zein sukaldean, diseinuzko lanparen artean aukera zabala aurkituko duzu.



Batez ere sabai oso altua duten etxeetan, lanpara hauek oso egokiak izaten dira espazioa aprobetxatzeko. Diseinuari dagokionez, denetarik dago



Inspirazio industrialekoak zein nautikoak erraz uztartu daitezke gainerako dekorazioarekin.



ATERPE ARBOTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK · TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar 635 74 84 65 www.carpinteriaaterpe.com Ander Maiztegi 655 73 75 51

ILARGI
ARGIGINTZA

Askatasun etorbidea 20 - DURANGO - Tel.: 946 812 492
www.facebook.com/ilargiiluminación

**Lasaitasuna nagusi:
Xarmadun egongelak**

EGONGELA

Eserlekuek ukitu berezia eman diezaiokeete egongelako dekorazioari. Berritzaileagoa edo 'Vintage'-a, bakoitzak bere gogokoen duena aukeratu dezala



Beheko suak,
piztu barik ere,
epeltasuna ematen dio
egongelari. Egurrezko
mahaiak eta tonu argiak
gainerako osagarriak
izan daitezke



Karmelo Agirre
Barne Diseinua
Top+ Interiors
610 50 10 86

gandarias
Interiorismo
Tel.: 946 810 722
info@mueblesgandarias.com
Arkotxa kalea, 6 - 48200 Durango

LOGELA**Atsedena tenplua:
Logela atseginak**

Atsedena beharrezkoa da egunean zehar pilotzen dugun estresa bideratzeko. Horretarako, logela eroso bat izatea ezinbestekoa da. Kolore argiak eta diseinu funtzionala ezinbestekoak dira.



Logeletan, hormetako kolore argiek atsedena errazten dute. Horregatik, kolore ukitua izarek eta kuxin koloretsuek eman dezakete



Ekainak 2 eta 3

CHOLLING DAY

BED'S DURANGO
ALLUITZ KALEA, 1
944 005 980

**MERKATUKO ATSEDEN
MARKARIK ONENAK
PREZIO PAREGABEAN**

2.000 BURKO BAINO GEHIAGO
1.000 OHE-OINARRI
1.800 KOLTXOI kostaprezioan

bed's

KOLTXOIAK | OHE-OINARRIAK | BURKOAK | OHEKO ARROPA

etarte
www.etarte.com

Euskal Herria kalea, z/g.
ZALDIBAR
T/F: 946 030 416
Mug.: 635 717 360
info@etarte.com

Ideiak sortu
Diseinatu
Eraiki
Apaindu
Bermatu

Barne-diseinatzailea:
Garazi Burgoa



Ondo atsedean hartu gura badugu, garrantzitsua da kalitatezko koltxoi bat izatea etxean, eta zaharra bada, aldatzea



Amatzia Abasolo fisioterapeuta da Durangon. Atsedena osasunean duen garrantzia azpimarratu du.

Behar den besteko atsedena hartzen dugu?

Gaur egun daukagun bizimoduagaz ez da behar beste atsedean hartzen. Atsedena ez da eta bakarrik gauetz lo egitea.

Hartzen dugun atsedean horren kalitatea kontuan hartzen dugu?

Sarritan, ez. Batzuetan uste dugu ohean sartu eta 6-7 ordu lo egitea nahikoa dela, baina ez da egia. Burua ere lasaitu behar baita ondo lo egin eta deskantsatzeko. Estres puntu batez, ardurekin, buruan mila gauza badituzu ohera sartzerakoan, lo zaudela burua martxan dabil eta, beraz, ez du deskantsurik hartzen.


Ondo atsedean hartzeko, zein irizpideri jarraitu beharko genioke?

Bere garrantzia eman behar diogu gure egunerokotasunean, eta denbora hartu deskantsatzeko. Batzuetan gure goputzari entzutea komeni da, eta arreta jarri ematen dizkigun abisuei.

Behar den bezala ez badugu atsedean hartzen, zein ondorio izan ditzake?

Ondo ez deskantsatzean nekea pilatzen joaten da, goizetan ohetik jaikitzerakoan nekata gaude, egunean zehar gauzak egiteko energia gutxiago daukagu, umorean ere eragin dezake. Luzera begira arazo larria izan daiteke.

Behar den bezala ez badugu atsedean hartzen, eragina izan dezake gure osasunean, epe motzera zein luzera



ALKI Alki Decoración-en kolore eta ehundura askotako bilduma berria aurkezten dugu.

Giro paregabea sortzen duten kolore neutralak, ukitu minimalista gehituz.

barne dekorazioa Mikeldi, 6 48200 Durango • 946 813 895
alkiinteriores@hotmail.com

etxedreams
COLCHONERIAS

%50 eko
DESKONTUA
Koltxoietan

DURANGO: Mikeldi 4 - Tel.: 946 202 138

KABIA **KOLTXOI, ALTZARI ETA DEKORAZIO DENDA**
infokabia.kabia@gmail.com Tel.: 946 414 086 Mug.: 691 302 271

kabiadurango
kabiadurangodis

DakaHome
.com

Mota guztietako altzarien online denda



*Beti berandu iristen da;
baina ez du bi aldiz pentsatu
behar berritasunak ikusteko*

#tanfácilquenotelocrees



**Zure lorategia
bizitzeko unea da.
Ikus itzazu Bilduma
Berriko multzoak,
100etik gora baitira.**



Bricolaje fácil

PINTURA**Aire berria:
pintura bereziak**

Obra handirik egin barik, etxea pintatuz eta koloreak behar den bezala aukeratuz, gure diseinua goitik behera aldatu dezakegu. Norberak pintura aukeratu eta lanari ekin diezaioke.

***Azulejuen kolorea
aldatzeko pintura***

Azulejuek, denboragaz, itxura txarra hartzen dute edo modaz pasatzen dira. Esmalte berezi baten laguntzagaz, azuleju horiek margotu egin daitezke, sukaldeari zein komunari ukitu berezia emanez. Norberak margotzeko aukera dago. Gainera, baldosak margotzeko, kolore aukera zabala dago. Hainbat koloreren konbinazioa egitea ere posible da.

***Pintura
fotokatalitikoak***

Gure denboraren %90 barruko espazioetan pasatzen dugu: etxean, bulegoan, eskolan, jatetxean, aisialdirako gunetan... Baina, igarri ere egin barik, osasunean eragiten duten hainbat substantzia kaltegarriaz inguratuta bizi gara. Badago pintura bat barruko airea garbitu dezakeena. Izan ere, pintura fotokatalitikoak iragazi eta garbitu egiten du.

***Klarion efektua
emateko pintura***

Askotan altzari zaharrekin zer egin jakin barik gelditzen gara. Altzari horiek berrizteko, klarion efektua ematen duen pintura erabili daiteke. Margo honek, ukitu 'vintage'-a ematen die altzariari. Zuriar gainera, kolore aukera anitza dago klarion efektua eman gura duenarentzat. Margotu eta gero, argizari berezi bat eman daiteke altzaria babesteko.



Pintura berriek hainbat abantaila ekarri dituzte. Usain gutxiago dute, eta eraginkortasun handiagoa. Berrikuntza pinturaren mundura heldu da.



DURANGO MARGOAK

DURANGO MARGOAK
Askatasun Etorbidea, 9 Durango
Tel.: 946 40 88 20
www.durangomargoak.com

**PINTURAK
GOI MAILAKO DEKORAZIOA
SISTEMA TINTOMETRIKOA
PAPER MARGOTUAK**

MONTÓ
pinturak



MONTÓ HTM
Azulejuetarako esmaltea



MONTÓ SMART
Pintura Fotokatalitikoak



MONTÓ CREA
Klarion efektua


Sukaldeetako modernitateak funtzionaltasuna du oinarri. Gainera, hormarik eta aterik gabeko sukaldeek espazio zabalagoa ematen diote gune honi.

SUKALDEAK

**Espazio zabalak:
sukalde atseginak**



Sukalde erdian jartzen den irlak espazioaren osagaien antolaketan eragiten du. Era berean, biltegi moduan ere leku zabala izaten du



MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

piolarrabe

Frai Juan Zumarraga, 19 48200 DURANGO
Tel.: 946 811 696
Faxa: 946 811 101

Elexalde, 28 48940 LEIOA
Tel.: 944 631 321
Faxa: 944 636 067

www.piolarrabe.com



APAINKETAK
ROYUELA
BERNIZADURAK-LEUNKETAK

Jokatu zure espazioekin modu xume eta personalizatuan

Kalebarria, 40 Durango
Tel.: 946 810 582 · info@royuela.biz





Sukaldean denetarik
pilatzen da: janaria,
ontziak, platerak,
mahai-tresnak.
Hori guztia
txukuntzeko,
biltegi egokiak
behar dira



LAGOI S.L.

MOTA GUZTIETAKO ZERAMIKAK

Aholkularitza pertsonalizatua

Eraikuntzarako materialak

SUOMI - Astolabeitia kalea, 9 - Abadiño - Tel.: 672 209 355

BILTEGIA ETA ERAKUSKETA

Ebanistería AGUSTIN

Murueta kalea, 1
48220 Matiena/Abadiño
946 812 685 - 667 590 795
www.ebanisteriaagustin.com
www.facebook.com/ebanisteriaagustin

PROIEKTUAK
ETA ERREFORMAK
GREMIOEN
KOORDINAZIOA

BERTAKO FABRIKAZIOA ETA DISEINUA
Etxeko altzariak: logelak, egongelak,
armairuak, sukaldeak eta komunak.

BERO EDER

www.beroeder.com

Egur-labeak eta konbinatuak txoko eta landetxeetarako

BEROKUNTZA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Rizzoli
Cottare & Loggia, dal 1922


Ixer Kalea, 20 etxabea | Amorebieta-Etxano | Tel.: 946 300 829 | info@beroeder.com | jabier@beroeder.com

Umeen geletan espazioa aprobetxatzea izaten da erronka nagusia. Ohatzeak izaten dira leku faltaren konponbidea.

UMEEN LOGELA

Ametsen espazioa: umeen gotorlekua

Umeen logeletan ezin da jolasik falta. Adinaren arabera, jolasaren bidez inguruagaz harremanetan jartzen dira eta ikasteko bidea aurkitzen dute



studio²

BARNE-DISEINUA

Montorra auzoa, z/g AMOREBIETA
Tel.: 946 301 396
Mug.: 671 695 287 / 671 695 289
www.studio2decoracion.com
amorebieta@studio2decoracion.com



leike

aroztegia & diseinua

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK




www.leikearoztegia.com Antso Estegiz, 3 Durango · Tlf.: 94 681 72 29 · leike.ad@gmail.com



Eider Eibarrek haurrentzat diseinatu dituen biniloek fantasiaren mundura eramango zaituzte. Zornotzako diseinatzaileak 18 urte daramatza ilustrazioak lantzen haur eta gazte literaturarako.

Lasai, egonean, sortzen, irakurtzen, asmatzen, lagunekin jolasten,... ari diren pertsonaiak dira Eider Eibarren biniloen protagonistak



Artekan, Kirol Errotan, Bizenta Mogel bibliotekan, ludotekan, Nevers Ikastetxean eta Musika eskolan horma irudiak margotu ditu Eibarrek



Eider Eibar diseinatzaile zornotzarrak umeentzako biniloak sortzen ditu, besteak beste.

Noiztik zabilta biniloak sortzen?

5 urte daramatza hormetarako biniloak sortzen. Haurren geletarako, liburutegiatarako, ludoteketarako, ikastetxeatarako,... Une honetan, Banilo bilduma aurkeztu eta diseinu horiek ezagutzera ematen ari gara.

Zertan inspiratzen zara?

18 urte daramatza haur eta gazte literaturarako ilustrazioak lantzen. Urte horietan, buruan sortu baina irudi forma hartu ez duten ideiak berreskuratu ditut, Banilo izeneko sormenaren "jolastoki" hau garatzeko. Ez dut idazle batentzat edo bezero batentzat lan egiten; niretzat egiten ditut marrazkiak, askatasun osoz. Grazia egiten didaten edota haurren iruditerian presentzia izatea gustatuko litzaidakeen egoerak, izaerak sortzen ditut. Egunerokotasunean, sorkuntza prozesuan eta irudimenaren jolasetan inspiratzen naiz.

Umeen mundutik, zerk erakartzen zaitu?

Umeen munduak eta marrazketak erlazio zuzena dute niretzat, guztiak erakartzen nau: sortzeko gaitasunak, beraien irudimenak, fantasia eta errealitatea bereizi behar ez izateak, arau propioak sortzeak, eta marrazketaz eta marrazketan bizitzeak.

Non eskuratu daitezke zure artelanak?

Salmentak www.banilo.eus webgunearen bidez edo info@banilo.eus kontaktuan. Facebooken: @banilobinilo.

Horma irudiak ere marrazten dituzu.

Normalean, haurrekin zerikusia duten espazioetan egiten ditut horrelako lan erraldoiak; enkargu bereziak izaten dira, denbora, lan eta kostu aldetik. Horregatik asmatu genuen biniloen formula.

AHOLKULARITZA PROFESIONALA

BERRIKUNTZAK DITUGU

**AZKEN BELAUNALDIKO PINTURETAN
PINTURA EKOLOGIKOETAN
ORBANEN KONTRAKO PINTURETAN**



TABIRA
COLOR

**ZATOZ GU BISITATZERA
ETA INFORMATZERA**

**Montorretas Ind. 9-F Pab. DURANGO
Tel.: 946 217 911**

izei®

Zuekin 1980tik



AROTZERIA ETA EBANISTERIA

Ate bereziak, egile-oholtzak,
beira-zuntzeko zoruak eta arotzeria oro har.

DISEINU ETA FABRIKAZIO PROPIOA

Sukaldeak, armairuak, bainugelak, logelak, gazteei zuzendutakoak, saloiak.
Bulegoetako altzariak eta kolektibitateak.

ENPRESA HOMOLOGATUA

Polimeroen eta erretxinaren erabilera, HI-MACS® kasu,
ezin hobea sukalde-gainekoetarako, bainugeletarako eta laborategi-mahaietarako,
eta baita diseinuzko pieza berezietarako ere.

ERABERRITZEAK

Etxebizitzak, merkataritza-lokalak eta enpresak.
Gremioen koordinazioa "obra giltza eskura".

FINANTZIAZIOA ZUEN NEURRIRA
www.izeidecoracion.com



Enpresak Premie
ziurtagiria dauka

> ANTZERKIA Itsaso Esteban Durangoko Plateruenean estreinatuko du Atara Zarata Durangoko taldeak *Eingo al deu?* antzezlan, bihar. Estreinaldiaren ostean ekainean egingo dituzten beste lau emanaldiren datak iragarri ditu taldeak webgunean, tartean, ekainaren 2an Bilboko Pabilioi 6 aretoan eskainiko dutena. Ekaineko lau saioak burututa, uda ostean berriro birari ekitea da taldekideen asmoa. Euskal Herriko gaztetxe eta aretoetan aritzea gura dute.

Euskaldunon eta sexuaren inguruko zazpi esketzek osatzen dute *Eingo al deu?* obra. “Antzezlan oso freskoa da, eta hainbat pasartetan identifikatuta sentitzen zara”, azaldu du Markel Ganboa taldekideak. Euskaldun berri baten eta euskaldun zahar baten arteko harremanean hizkuntzari lotuta sortzen diren egoerak, tradizioak euskaldunonganduen eragina, maite-aferra birtualak, lagun baten sexualitateari buruz koadrila batek duen solasaldia... dira, esaterako, obrako egoeretako batzuk.

“Antzezlanean agertzen diren egoerak egunerokotasunekoak dira, baina muturrera eramandakoak”, Ganboaren berbetan. Azaldu duenez, baina, badaude obran “topikoetatik atera eta publikoari beste ikuspegi bat ematen saiatzen garen beste pasarte batzuk”.

Eingo al deu? lanaren sinopsian, “hartu arnasa eta askatu



19 eta 29 urte arteko lan taldeak osatzen du Atara Zarata Durangoko antzerki talde amateur. Lander Campos

Sexu harremanei buruzko ‘Eingo al deu?’ komedia estreinatuko dute Plateruenean

Bihar eskainiko dute antzezlan berria, lehenengoz, Atara Zarata Durangoko antzerki taldeko gazteek

gerrikoa” diotso taldeak ikusleriari. “Jesarri eroso, sexuaz hitz egitera goaz eta”, dio Ganboa aktoreak, “eta egon prest hainbat pasartetan zuen buruak islatuta ikusi eta barre egiteko”.

Kepa Gallegok idatzi zuen eta 2005ean Serantes saria jaso zuen testua oinarri hartuta prestatu du Atara Zarata taldeak *Eingo al deu?*. Gallegoren gidoi originalekoei, gainera, hain-

bat pertsonaia gehitu dizkiete Atara Zaratakoek. Bakoitzak hainbat pertsonaia antzeztuz, honako aktore taldea agertzen

Euskaldunon eta sexu harremanen inguruko zazpi esketzek osatzen dute ‘Eingo al de?’ obra

da oholtzan, *Eingo al deu?* obran: Markel Ganboa, Iker Villa, Peio Velasco, Iker Garate, Iratxe Urkiaga, Yeray Gomez eta Ane Moreno. Julene Bernaolak dihardu, bestalde, zuzendari lanetan.

19 eta 29 urte arteko lan taldea da Atara Zarata taldea osatzen duena. 2011n taldea sortu zutenetik hainbat lagun igaro da taldetik, eta Markel Ganboa eta Julene Bernaola dira hasieratik

dihardutenak. Lan honetarako, Durango, Barakaldo, Izurtza eta Bilboko kide berriak batu zaizkie Ganboari eta Bernaolari.

Biharko Platerueneko estreinaldirako gogotsu daude Atara Zarata taldeko kideak, eta oso eskertuta antzezlan hau aurrera ateratzen lagundu dieten guztiei. Berezik, Durangoko kultur eragileek eskaini dieten babes baloratzen dute.

Zazpi urteko isiltasuna hautsiko du Muted seikoteak, ekainaren 2an

Durangoko Platerueneko kontzertuagaz berrartuko dute taldea abadiñarrek



Duela zazpi urte taldea utzi zuten sei musikariak dira Muted taldea berriro martxan ipini dutenak.

> MUSIKA I. E. Duela zazpi urte utzi zuten Muted taldea, taldekideen momen-

tu hartako bizimoduak ez zielako ahalbidetzen taldeari eskaintzeko denborarik ateratzea.

Zazpi urte geroago, taldearen falta sumatu dute, eta berrartu egingo dute Muted. Utzi zute-

nean taldea osatzen zuen seikote berberak berrartu zuen Muted, abendu hasieran. Edu Perez eta Dani Benito gitarristek, Alberto Hernandez baxu-jotzaileak, Aitzol Maiztegi abeslariak, Rubén Montoto bateria-jotzaileak eta Christophe Tytgat programatzaileak osatzen dute taldea.

Edu Perez taldekideak azaldu duenez, “bederatzi urtez egin genuenaren falta igarri dugu, eta aukera ikusi dugu proiektua berrartzeko”. Aitortu du, 2010. urtean taldea utzi zutenean ez zutela pentsatzen bueltatuko zirenik. “Pentsa”, dio Perezek, “taldearen materialik gehiena utzi edo saldu egin genuen”.

Zazpi urteko geldialdiaren osteko lehenengo kontzertua Durangoko Plateruenean eskainiko dute, ekainaren 2an. Zazpi urteren ostean kantak berriro prestatzea espero zutena baino errazagoa egin zaiela nabarmendu du Perezek. Taldearen ibilbideko kantak, eta bertsioko eta sorpresaren bat ere eskainiko dute Durangon.

Taldekideetako batek sare sozialetan ipini zuen aspaldiko argazki batek ekarri du Muted berriro elkartzea. Perez taldekideak kontatu duenez, “abendu hasieran argazkia ipini zuenean bueltatzea gustatuko litzaidakeela idatzi nion; gauza batek bestea ekarri zuen, eta harremana berrartu eta seikotea berriro martxan jarri genuen”.

Taldekideetako batek sare sozialetan ipini zuen aspaldiko argazki batek animatu zituen elkartzera

Edu Perez taldekideak azaldu duenez, uda ostean gura dute Muted talde abadiñarreko kideek disko berrirako konposizioak lantzen hasi. “Orain, Durangoko kontzertua buru-belarri prestatzen gabiltza, eta datorren barrikuko emanaldi horren ostean ekingo diegu epe luzerako ditugun helburuei”.

> ANTZERKIA Itsaso Esteban Fernando Torrecillak 2014an kaleratu zuen *Apustua* ipuinean oinarrituta Txintxaun kolektiboa antzerki taldeak sorturiko izen bereko antzezlaren estreinaldia hartuko du Berrizko Kultur Etxeak, gaur, 19:00etan. 1963an Berrizen jazotako egiazko istorio bitxi bat dago Torrecillak idatzitako ipuinaren zein Txintxaunek landutako antzezlaren oinarrian: Berrizko probalekuan idien kontra aritzeko zirkutik ekarri zuten Mary elefantearen istorioa.

Geroa eta Kukubiltxo taldeetan ibili zen Javier Obregón durangarrari egin zion Txintxaun Berrizko taldeak antzezlana zuzentzeko gonbidapena. Zuzendariaren berbetan, “lan gogorra izan da irailetik hona” egin dutena. Aktoreek bere aginduetara egin duten lan hori da, hain zuzen ere, *Apustua* obraren osagirik inportanteena, Obregonen ustez. Andoni Ruizen, Raul Perezen, Iban Mestratuaren, Bego Pereiraren, Josu Rodriguezen, Ainara Aparicioaren eta Aitor Parejaren antzezpena.

Gaur estreinatuko dutena, zentzu askotan, Txintxaun taldearentzat “apustu” eta “erron-

‘Apustua’ obra estreinatuko du, gaur, Txintxaun talde berriztarrak

Ikusleria familiarrari zuzenduriko antzezlana eskainiko dute, Berrizen



Udal ordezkariak, Txintxaun taldeko kideak eta Fernando Torrecilla ‘Apustua’ ipuinaren egilea, Berrizko Kultur Etxean.

ka handia” izan dela nabarmendu dute aktoreek. Andoni Ruizen berbetan, “umeei zuzenduriko antzezlantetan esperientzia gutxi dugulako, ipuina oholtzarako moldatzeko testu gehiago sortu behar izan dugulako, euskarazko lan bat delako...”.

Raul Perez aktoreak nabarmendu du “esfortzuagaz eta gogoagaz emaitza polita” atera zaiela.

Kultur ekoizpenei laguntza *Apustua* ipuina eta antzezlana bezalako euskarazko kultur ekoizpenak bultzatzeko Berriz-

ko Udalak eskaintzen dituen laguntzen deialdian parte hartzeko deia egin dute, asteon. Berriztarrek egindako euskarazko kultur ekoizpenei laguntzeko, 2.000 euro emango ditu udalak, aurten, eta bi hilabetez dago lanak aurkezteko aukera.

Durangoko Euskal Astea, Euskal Jaiak izen berriagaz

Ekainaren 17ra arte iraungo du egitarauak



Programazioa antolatzen duten elkarteetako ordezkarien agerraldia.

> PROGRAMAZIOA I. E. Hemendik aurrera Durangoko Euskal Jaiak izenagaz antolatuko duten Euskal Astearen XX. edizioa aurkeztu zuten, joan zen eguenean, Durangoko udaltxean. Gaurtik ekainaren 17ra arte programazio horren barruan izango diren kultura, kirol eta folklore arloko ekintzak antolatzen dituzten Durangoko elkarteetako ordezkariak egin zuten agerraldia. Elkarte, ikastetxe eta udaleko sailen artean, guztira 28 taldek parte hartu dute XX. edizio honetan.

Gerediaga Elkarteak proposatuta aldatu diote izena programazioari. Gerediagaren proposamenez, “1886an hasitako Durangoko Euskal Jaien sorreran ezinbestekoa izan zen Jose Maria Anpuerori omenaldia” egin gura diote Durangoko Euskal

Jaiak izen berriagaz. Gerediaga Elkartearen eskutik, hain zuzen ere, Anpueroren omenezko plaka bat ipintzeko ekitaldia jasotzen du programazioak. Maiatzaren 27an, 13:00etan, egingo dute ekitaldi hori, Pinondoko lorategian.

Eskolarteko IX. pintura lehiaketako erakusketak zabalduko du programazioa, gaur, eta ekainaren 17an amaituko da aurtengo edizioa, VIII. Peter esku pilota jaialdiko finalekin. Tartean, *Eingo al deu?* antzezlaren estreinaldia, XXXV. euskal dantzen jaialdia, Durangaldeko ermitetara bisitaldia, Durango Hiria txistu kontzertua eta Durangaldeko rock taldeen kontzertuak izango dira, besteak beste, Durangon. Udalaren webgunean dago programazio osoa eskuragarri.

GEURE DURANGALDEA

JOSUNE ARANGUREN ZATIKA

Kultura teknikaria



Culture

Culture ingeleseko hirugarren hitzik “konplexuena” dela irakurri berri dut. Ez esan ez dela tiratu barik utziko zenukeen haria. Zergatik hirugarrena? Zeintzuk dira beste biak? Non datza konplexutasuna? Ulegarria egiten zaigu, bestalde, horrela izatea: izan ere, kultura gizatasunaren muin bada, zail izan behar du derrigor hitz gutxitan azaltzen. Gainera, kontzeptu honek, hizkuntzaren erabilerak hala eskatuta, esanahia aldatu du denbora joan ahala. Hitzen esanahia kontsentsu birtatez eratzen dugu gizakiok eta “kultura” kontzeptuaren kasuan, industrializazioaren kalteei aurre egiteko bitarteko esan nahi izatetik —azken sasoiaren adostutako esanahi bat aipatzearen— kapitalismoaren iturri errentagarrietako bat lez ulertzera joan zaigu. Muturretik muturrera.

Har dezagun jolas moduan, eta kultura hitza erabiltzen dugunean, egin ditzagun aurrerantzean ondoko egiaztapenak. Inkontziente kolektiboari traizio egin dio nire erabilera honek? Kulturaren hutsalerako bidea izendatzeko erabili dut? Beste edozertatik baino gehiago merkantilizaziotik duenaz ari naiz? Elkarbizitzaz hausnarketa egitera bultzatzen gaituen esperientzia da aipatutako hau? Gizarte zibila eraldatzeko indarra duen jarduera edo ekimena izendatu dut? Edozein pertsonarentzat eskura dagoen jarduera batez jardun dut? K handiz ala k txikiz ahoskatu dut kultura?

Jolas horretan aritzeagatik baldin bazaie hain konplexu kontzeptua, bejondeiela!

<http://josunearanguren.blogspot.com.es/>

26
OSTIRALA - 18:00 KOMEDIA
Nunca es tarde
Gora: Arbola Zaharra elkarteak, Gernika

27-28
LARUNBATA ETA IGANDEA - 19:00 KOMEDIA DRAMATIKOA
No hay mal que por bien no venga
Gora: Ta Gora antzerki taldea, Durango

UDABERRIKO ANTZERKI FESTIBALA
ADINEKOAK ANTZEZTUTAKO AMATEUR ANTZERKIA

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango.eus

San Agustin KULTUR GUINEA

PLATERUENA
Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA
EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

MAIATZAK 26
19:30ean
COMBO KONTZERTUAK
KONTZERTUA

Eingo al deu?
MAIATZAK 27
22:00etan
EINGO AL DEU?
ANTZERKIA

MAIATZAK 31
20:00etan
ALEX TXIKON
IKUS-ENTZUNEZKOA



JATETXE GIDA

**ÑAM!****KANBIO JATETXEA**San Migel Dueda auzoa
AMOREBIETA-ETXANO**Tel.: 946 730 033**Aste bitarteko menua, asteburuko menua,
menu berezia eta karta.**ÑAM!****KOBIKA JATETXEA**

San Ignazio, 8 DURANGO

Tel.: 946 810 003Egile sukaldaritza eta tradizionala.
Menu bereziak eta karta.**ÑAM!****PLATERUENA Kafe Antzokia**

Landako etorbidea, 4 DURANGO

Tel.: 946 030 300Egunero zabalik. Menu bereziak, egunekoak,
taldeentzakoak eta ospakizunak.**www.plateruena.eus****ÑAM!****OLAJAUREGI JATETXEA**

Kurutzia Kalea, 52 DURANGO

Tel.: 946 200 864Eguneko menuak, bereziak, taldeentzakoak
eta ospakizunak. Egunero zabalik.**www.olajauregi-jatetxea.com****ÑAM!****IBARRA****SAGARDOTEGI-GARAGARDOTEGIA**

Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA

www.ibarra-sagardotegi.com**Tel.: 946 731 100**20. urteurrena. Orain garagardotegia eta sagardotegia;
menu ezberdinak. Gure upategian egindako sagardoa.
Astean zehar soilik erreserbentzako zabaltzen da.**Anbotoren lagunak**Ibarra Sagardotegi-Garagardotegiaren eskutik
bi pertsonentzako menua zozkatuko dugu
Anbotoren Lagunen artean.Hile honetako irabazlea: **Pilar Bilbao Zarandona!****ZORTE
ON!**

berria denda

Euskal Herriko ardoa, saskira!

SOLAGÜEN

SOLAGÜEN ARDOAK

2011. urteko ERRESERBako ardoa



70 € 6 botilako kutxa

2014. urteko ardo ONDUA



40 € 6 botilako kutxa

Solagüenen Picardias erdigozoa



36 € 6 botilako kutxa



LEZAUN ARDOAK

2011. urteko Lezaun 0,0 sulfito (2017ko Zilarrezko Ekoardoa - Errioxa)



28 € 6 botilako kutxa

2009. urteko Lezaun Gazaga (Nafarroako sor-markako haritz ardo onenaren saria, 2017)



40 € 6 botilako kutxa

AMEZTOI TXAKOLINDEGIA



36 € 6 botilako kutxa

TALLERI TXAKOLINDEGIA

BITXIA txakolina



39 € 6 botilako kutxa



AZPEA ARDOA

Nekazaritza ekologikoko ardoa
Haritzetan ondutako ardoa



25 € 6 botilako kutxa

K5 ARGIÑANO TXAKOLINDEGIA

K PILOTA txakolina



45 € 6 botilako kutxa

HIRUZTA TXAKOLINDEGIA

HIRUZTA
HOZGA



45 € 6 botilako kutxa

Eskariak egiteko azken eguna,
maiatzaren 31.
Ekain erdialdean banatuko dira.

Eskaintza mugatua!

Osatu zure saskia!

Bidalketa gastuak
DOAN

(0034) 943-30 43 45 • berria.eus/berrialaguna/denda/

Ametsa errealitate bihurtzetik pauso batera dago Zornotza

Urrezko Ligara igotzeko finala jokatuko du Valladoliden aurka



Joan zen domekan Larrea kiroldegian jokatuko zuten partiduko irudia. Granadarak irabazi zuen.

> SASKIBALOA J.D. Zornotza Saskibaloi Taldeak hainbat mezu argitaratu ditu sare sozialen bidez azken egunetan, zaleek animoak emateko. Horieta batean, amesten jarraitzeko eskubidea aldarrikatzen zuten. Bada, begiak ireki eta errealitatea dastatzeko unea heldu zaie, ametsa egia bihurtzeko zorian dagoelako. Martitzenean Granada kanporatu zuten eta Urrezko Ligara igotzeko finala jokatuko du Valladolid taldearen aurka. Igotzeko, hiru partidu irabazi behar dira. Aurreneko biak Larrea kiroldegian jokatuko dituzte: lehenengo gaur bertan, 20:00etan, eta bigarrena domekan, 12:30ean.

Talde sendoaren adibide Granadaren kontrako kanporaketak garbi utzi du Amets Zornotza ez dela egoera gaitzetan kokiltzen den taldea. Horren

adibide dira partidu bi: Larrean 81-80 irabazi zutena, eta asteon bertan Granadan jokatu duten bosgarren eta azken partidua (81-92). Etxetik kanpora eta 6.000 zaleren aurrean presioari ezin hobeto aurre egin zioten. Ez da samurra burua hotz mantentzea bihotza bero dagoenean, baina bien arteko oreka lortu zuten. David Iriartek partidu bikaina jokatu zuen, 29ko balorazioagaz.

Kulturalak gol bateko alde defendatu behar du

Ecijan igoera faseko itzuliko neurketa jokatuko du

> FUTBOLA J.D.

Durangoko Kulturalak Bigarren B Mailarako igoera faseko itzuliko partidua jokatuko du, bihar arratsalean, Ecijan. Igor Nuñezek zuzendutako taldea gol bateko abantailagaz doa Andaluziara. Joan zen asteburuan 1-0 irabazi zuten Tabiran, Ekain Zenitagoiaren gol bati esker.

Lepo betetako zelaian partidu txukuna jokatu zuten durangarrek. Partiduko zatirik handienean jokoan nagusitu ziren, aukera garbiak sortzea

kostatu zitzaizen arren. Golean azti ibili ziren durangarrak. Area ertzeko falta batean, andaluziarrak hesia jartzen zebiltzala, sakonean azkar atera zuten eta Ekain Zenitagoiak ez zuen huts egin.

Bigarren taldea, Tabiran

Hirugarren Erregionaleko taldea mailaz igo da aurten, eta orain ligako txapeldun geratu gura du. Horretarako, Trapagaran menderatu behar du bihar, 16:00etan, Tabiran.



Joan zen asteburuan Tabiran jokatu zen partiduko irudia.

Athletic eta Oiartzun Euskal Koparen bila

> FUTBOLA J.D.

Athletic eta Oiartzun Euskal Kopako finalaren bila lehiatuko dira domekan, 12:00etan, Durangoko Tabira futbol-zelaian. Sarrera doakoa da. Athletic da sailkatzeko favorito, lehenengo mailatik jaitsi egin den Oiartzunen aurrean.

Euskadiko gimnasta onenak Landakon lehian

> GIMNASIA ERRITMIKOA J.D.

Domekan gimnasia erritmikoko Euskadiko txapelketa jokatuko dute Durangoko kiroldegian, gazte zein senior mailetan. Banakakoan, Uztai taldeko Ane Grande, Nerea Moreno eta Ane Trancho arituko dira lehian.

Umeen futbol jaia minbizia duten umeei laguntzeko

Ekainaren 10eko jairako izen-ematea hasita dago



Gertasport eta Aspanovas elkarrekin kideak eta alkatea aurkezpenean.

> FUTBOLA J.D.

Gertasportek eta Iurretako Udalak, elkarlanean, Futbol Festa antolatuko dute ekainaren 10erako Askondoko aterpe berrian. Futbol kantxa bat (15x8) jarriko dute, eta neska-mutikoei hiru hiruren kontrako partiduak jokatuko dituzte, 10:00etan hasita, egun osoan zehar. Puzgarriak, eskulanak eta abar izango dira. Opariz betetako otarre bat ere zotz egingo

dute. Izen-ematea Larrakoze-laian, Durangoko Open Shop dendetan eta Gertasporten webgunean egin daiteke: 10 euro umeko. Izen-emateekin eta otarrearen zozketagaz batutako diru guztia Aspanovas elkarrekin emango diote. Minbizia duten umeen gurasoek sortutako elkarte da. Gaztetxoak ospitalean dauden denboran, hango egonaldia eramangarriagoa izan dadin saiatzen dira.

Errugbia integratzailea dela erakutsiko dute

Elorrio Rugby Taldeak antolatuko du ekimena

> ERRUGBIA J.D.

Errugbia mundu guztiari atea irekita dagoen kirola dela erakutsiko dute, domekan, Elorrioren. Alde batetik, goi mailako errugbiariak batuko dira: Gaztedi, Getxo eta Elorrio taldeetakoak. Bestetik, Bizkaiko down syndromearen denbora libreko taldeko eta aniztasun funtzio-

naleko umeak batzen dituen Haszten elkarteko kideak gonbidatu dituzte. Eta, 10:30ean, denak elkarrekin errugbian arituko dira kirol integratzailea dela erakusteko. Askotariko jokoak egin ondoren, udal txean harrera egingo diete eta, amaitzeko, plazan bazkalduko dute.



Udaltxeko harreraren ostean elkarrekin bazkalduko dute.

DRTk emakumeen errugbi txapelketa antolatuko du 30. urteurreneko ospakizunean

Egun osoan errugbi partiduak egongo dira Arripausuetan; gauean Landako Gunean batuko dira afaltzeko, eta Luhartz taldeak erromeria eskainiko du

> KIROLA Joseba Derteano Durango Rugby Taldeak egun osoko jaia antolatu du zapatutako, sortu zeneko 30. urteurrena ospatzeko. Goizetik iluntzera Arripausueta zelaian batuko dira, eta iluntzean Landako Gunea tokialdatuko dute jaia.

Arripausuetan adin tarte guztietako partiduak jokatu dituzte: den-denetan gonbidatu berezi bat izango dute: Hernani

Club Rugby Elkartea. “Hernani gonbidatu dugu, formakuntzan eta amateurretan egiten duten lana eredu garria delako. Kategoria denetan etxeko jendeagaz dihardute, eta beti errugbi eskola lantzen. Gure lan ildo ere horixe da gaur egun”, adierazi du DRTko presidente Juan Manuel Iriondo Txapok.

Beraz, partidu denak DRTren eta Hernaniren artekoak izango

dira. 10:30etik aurrera, mailaz maila, 18 urtez azpiko kategoriarira arteko partiduak jokatu dituzte. Bazkalostean, 15:00etan, beteranoena hasiko da.

Segidan, 17:00etan, urteurrenari begira antolatu duten I. Durango Neskak Rugby Txapelketa izeneko txapelketa jokatu dute talde biek. Emakumeen errugbia sustatzeko egiten dabilzan ahaleginaren barruko



Emakumezkoen eta gizonezkoen Nissan Gaurisa senior taldeek partidu bana jokatu dute H



“Baloirik ez entrenatzeko, eta pase imaginarioak ematen genituen”

> DRT-REN SORRERA

Durango Rugby Taldea 1986-87 denboraldian sortu zuten. Elorrioren bazegoen taldea ordurako, eta han zebiltzan durangar batzuk hasi ziren kontua mugitzen. “Hor sortu zen txispa, Iñaki Barrenetxea, Rikar Aragon eta halako jendeagaz”, gogoratu dute sorrerako taldeko Iñigo Camarerok eta Iñaki Uribek.

Eurentzat bientzat kirol “ezezaguna” zen. “Telebistan bost nazioetako partiduak ikustetik baino ez genuen ezagutzen”, dio Camarerok. Alpino tabernan batu ohi ziren; han, errugbi talde berriaren izen-emateko zerrenda zegoen, eta izena eman genuen. Ez ziren bakarrak. 20-25 bat laguneko taldea osatu zuten.

Garai hartan, “ilusioa” izan zuten traba denak gainditzeko botika. “Hasieran ez genuen ezer, ezta baloirik ere”, gogoratu du Uribek. “Bereziganera joaten ginen entrenatzera, eta han ibiltzen ginen, elkarrizketa imaginarioak ematen”. Orduan ez zuten errugbi-zelairik ere. Beraz, partidu egunetan nomadak ziren: Garaizar, Iurretako Larrakozelaia, Arriaundi, Derioko seminarioa... “Arriaundin zelai bat zegoen. Argindarra sortzeko sorgailu zahar bat zeukan, eta biradera bati eragin behar genion.

Neguan, kostatzen zitzaion arrankatzea. Beraz, bata bestearen atzean jarri eta txandatu egiten ginen biraderari eragiteko”, Uriberen esanetan. Larrakozelaia futbol-zelaia zen, eta beraiek egindako ateak muntatzen eta desmuntatzen zituzten partiduak hasi aurretik eta amaitu ostean. “Errugbian hirugarren denbora dagoela? Guk laugarren eta bosgarren denborak ere bagenituen”, dio Camarerok. Deriokoa ere ez zen paradisua, “zuloz betetako zorua eta bigarren mundu gerrakoak ziruditen dutxak” zituen.

DRTren ekonomiari laguntzeko, hainbat ekintza egiten zituzten. Goi-kaleko eta Santa Anako jaiak antolatu zituzten urte batzuetan. Txosnak ere jartzen zituzten. Gaur egungo Rugby Taberna txosna edo lokal bat izan zen taberna bihurtu aurretik. Kluba eratu eta urte gutxira sortu zen taberna. “Uste genuen inportantea zela batzeko eta errugbi giroa bizitzeko gune propio bat izatea”, azaldu dute.

Klubaren sorreran zein harrezkero, Juan Mari Iriondo Txapok eta Jose Ignacio Azurmendi Txusmenek, besteak beste, egindako lana goraiatu dute. “Hor egon dira beti, orduan eta orain ere bai”.

“Zuzendaritzako kide bat izan zen gure lehenengo entrenatzailea”



> EMAKUMEEN TALDEA

Emi Mendez, Ines Etxegibel eta Goretti Etxegibel emakumezko taldearen sortzaileetakoak eta lehenengo taldeko partaideak izan ziren. 1989. urtean sortu zuten taldea. Gernikak eta Gaztedik emakumeen taldeak zituzten, eta Emi Mendezek, 14 urteko neskatok, proposamena bota zuen bere lagunartean: “Zergatik ez dugu emakumeen talde bat sortzen?”.

Durango Rugby Taldeak urte bi zuten, sorrerako egiturak oraindino erabat sendotu barik zeuden eta denek ez zuten egoki ikusten emakumeen taldea orduan sortzea, proiektua bera egonkortu barik zegoenean. Beraz, aurrean bat egin zuten zuzendaritzakoak konbentzitzeko. Mendez emakume bila hasi zen, Durangoko koadrilarik koadrila, errugbi taldea sortzeko. “Temati aritu nintzen, ikastetxeetan honi galdetu, besteari proposatu...”, gogoratu du. “Sasoi hartan hori egin izanaren garrantzia nabarmendu behar da”, gehitu du Ines Etxegibelek. 30 bat neska batuta, zuzendaritzara jo zuen berriro, eta bozketan baiezkoa nagusitu zen, gehiengoz. “Babestu gintuztela da garrantzitsua. Gainera, orduko zuzendaritzako kidea

zen Txusmen [Jose Ignacio Azurmendi] izan zen gure lehenengo entrenatzailea”, azaldu du Ines Etxegibelek.

Goretti Etxegibel Madrilen ikasten zebilela hasi zen errugbian. “Durango bueltatu eta emakumeen talde bat sortzen zebiltzala jakitean ezin nuen sinetsi. Madrilen bai, baina Durango eta 1989an? Itzela zen”. Belaunetaraino heltzen zitzaizkien mutilen kamisetekin entrenatzen ziren, Bereziganen eta inguruko ikastetxeetan, orduan ez zegoen-eta errugbi-zelairik.



URIBARRI
BARRUTIETA

Ines Etxegibelek ibilbide oparoa eta arrakastatsua izan zuen errugbian, eta gaur egun Uribarri Barrutieta haren pausoei jarritzen dabil. DRT-tik irtenda Getxon jokatzeko dabil, eta Espainiako selekzioagaz munduan zehar ere bai. “DRTn hezi naiz. Han ezagututako lagunak eta jasotako baloiak, errespetua, taldearen garrantzia... betiko izango ditut nigaz”, dio durangar gazteak.



Hernaniren kontra. Lehior Elorriaga

**EGITARAU
MAIATZAK 27****-ARRIPAUSETAN-****10:30:** 8, 10, 12 eta 14 urtez azpiko taldeen partiduak.**13:00:** 16 eta 18 urtez azpiko taldeak. DRT**15:00:** Beteranoen partidua: Sapuzaharrak -Azerizaharrak**17:00:** I. Durango Neskak Rugby Txapela DRT eta Hernaniren artean.**18:30:** Senior mailako gizonen partidua: DRT - Hernani.**-LANDAKO GUNEAN-****20:30:** afaria.**21:30:** orain 30 urteko nesken eta mutilen taldeei omenaldia.**22:00:** Nissan Gaurisa kotxearen zozketa.**22:30:** Luhartz taldearen erromeria.

ekimena da. Txapelketa honek jarraipena izango du aurrerantzean, eta bi urterik behin egingo dute. Datorren urtean haur-kategoriako txapelketa antolatuko dute eta, urterik urtera, torneo biak txandatzen joango dira.

“Hernani taldea gonbidatu dugu, eredugarria delako formakuntzan eta eskolan egiten duten lana”

Azkenik, 18:30ean, gizonen talde nagusi biek jokatu dute. Egunean zehar gazte-txontzat gaztelu puzgarriak ere jarriko dituzte. Guztira, 500 bat lagun batzea itxaroten dute antolatzaileek.

Landako Gunean afaria

Iluntzean Landako Gunera eramango dute ospakizuna. 20:30ean denek elkarregaz afalduko dute. Hernaniko senior mailako jokalaria ere hantxe izango dira. Oraingoz, 400 bat txartel saldu dituzte. 21:30ean, DRTren sorrerako lehenengo taldeei —gizonezkoak zein emakumezkoak— omenaldia egingo diete. “Iragana gaur egunagaz lotzeko modua” izango dela azaldu du Txapok.

22:00etan atea irekiko dituzte, gura duten guztiak jaiko parte bihurtu daitezten. Une horretan autoaren zozketa egingo dute, denboraldi osoan errifak saltzen ibili ostean. Azkenik, 22:30ean, Luhartz taldearen erromeriagaz amaituko dute urteurren jaia.



“Errugbi eskola funtsezkoa da. Erein barik ez da uztairik jasotzen”

> BAMBINO ERRUGBI ESKOLA

Etxeko jokalariekin hornitzen den klub batean berebiziko garrantzia dauka harrobia. Horregatik, mimo bereziagaz zaintzen dute Bambino Rugby Eskola. “Eskola funtsezkoa da. Erein barik ez da uztairik jasotzen”, diote Jose Ignacio Azurmendi *Txusmen* eta Sonia Oveja eskolako arduradunek.

Errugbi eskola orain 15 bat urte jaio zen. Urte haietan eman zen prozesu baten ondorio naturala izan zen. Federazioak antolatutako kontzentrazioetan herri askotako umeak batzen ziren. Durangokoak ere bai. Hasieran hiru ziren, ondoren sei eta, apurka, kopuruak gora eta gora egin zuen. Eskari horren bultzatzaile jaio eta egituratu zen eskola.

Gaur egun 6 eta 14 urte arteko 100 gaztetxo dituzte. “Durango rugby taldearen erdia eskola da”, azaldu du *Txusmen*ek. Klubaren gaur egungo baliabideentzat “kopuru hori da topea”. Eskaintza zabaltzeko, jende gehiago eta baliabide ekonomiko handiagoak beharko lirateke, joan-etorrietako autobusak ordaintzeko, esaterako. Horregatik, eskaintza kalitatearen lehenesten dute.

“Pertsonak heztea gura dugu”, dio Ocejak. Denboraldiko helburua ez da

partiduak irabaztea, balio zehatz batzutan sakontzea baino. Iaz ‘errespetua’ landu zuten; aurten konpromisoan sakontu dute.

Durango ikastetxeekin gertuko hartu-eman egin dute. “Herriko jendeagaz hornitzen gara, eta ikastetxeak dira hori bilatzeko oinarri. Badira urte batzuk ikastetxeetako lanketa oso garrantzitsua dela konturatu ginena”, azaldu du Ocejak. Hasieran ikastetxeetako heziketa fisikoko irakasleekin batzen ziren, errugbia euren programan txertatzeko eskatzeko. Orain urte gutxi, *curriculumean* sartu zuten errugbia, lanketa jarraitu bat bermatzeko.

Ikastetxetik Arripausuetarako zubi lana urtero antolatzen duten Tag Rugby Topaketak egiten du. “Bizipen berri bat izaten da umeentzat”. Ez baita berdina ariketak gimnasio batean edo benetako errugbi-zelaian egitea, beste 500 gaztetxoz inguratutik.

Eskolako %15-20 neskak dira. “Txapelketetara goazenean geu izaten gara neskarik gehien duen kluba”, *Txusmen*en esanetan. “Baina ez dugu itsuen herriko begiokerra izan gura, eta emakumeen errugbia sustatzea da lan ildoetako bat guretzat”.

“Harremanei eustea da helburua, baina irabazteko grina ere badugu”

**> BETERANOEN SAPUZAHARRAK TALDEA**

DRT adin tarte guztiak barneratzen dituen familia handi bat da. Beteranoak ere bai. 2011n sortu zuten Sapuzaharrak taldea. Gaur egun 35 bat kide ditu, eta urtean hainbat partidu jokatu dituzte.

1969-73 urteen artean jaiotako belaunaldiari erretiratzeko sasoia heldu zitzaionean, beteranoen taldea sortzea erabaki zuten. “Aurretik ere jokatu izan ziren beteranoen partiduak, baina denboran oso sakabanatuta eta segidarik barik. Errugbian jokatzeko jarraitzeko eta elkarren arteko hartu-eman eusteko, ideia ona zela pentsatu genuen”, azaldu du DRTko seniorretan 22 denboraldi egin zituen Gotzon Gomezek. Geronimo Aviles izan zen talde hartara batzeko Gomezek deia jaso zuenetako bat. “Zazpi urte ziren errugbia utzi nuenetik, baina, zelan ez, batuko nintzela esan nion”, gogoratu du dimoztarrak. Arratiko Zekorrek taldeko sortzailetakoa da Aviles, eta hainbat denboraldi eman zituen DRTn Durangora bizitzen etorri ostean.

Arrasateko beteranoen taldea zuen, haiekin hartu-eman ona zuten, eta hango futzionamendua hartu zuten oinarri. Ekonomikoki autonomoak dira kuoten

bidez, eta estatutu propioak dituzte. Hilean behin entrenatzen dira gutxienez, eta urtean hainbat partidu jokatu dituzte. “Hasieran Nafarroako La Unica taldearen kontra jokatu genuen ia beti. Baina, orain, gero eta talde gehiago daude”, dio Avilesek. Aurten Santander taldearen kontra jokatu dute, Hernaniren aurkako partiduaren atarian daude, eta ekainean beteranoen Bizkaiko txapelketa jokatu dute.

Errugbian jokatzeko gozatu egiten dute, baina horrek ez du esan gura lehia albo batera uzten dutenik. “Ustedut jokalaria batzuek eusten diogula oraindik irabazteko grina horri. Batzuetan pikeak ere sortzen dira”, onartu du Gomezek. Aviles ere gaztetu egiten du joko bere osotasunean sentitzeak. “Plakaketak gustatzen zaizkit, beti nago horrelakoetan sartuta. Gero gorputza minberatuta izaten dut, baina... Beste herrialde batzuetan Tag Errugbian aritzen dira beteranoak, baina nik gurago dut geurea”, dio Avilesek.

Azken urteetan jokalaria berriak batu zaizkie, eta odol gazteagoaren ekarpena igartzen dela dio Gomezek, “batez ere korrika egiterako orduan, batzuei gero eta gehiago kostatzen zaigu eta”.

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Maiatzaren 26an, 22:00etan, Elorriko Arriolan

Mami Lebrun

Kepa Errastik sorturiko obra eskainiko dute gaur Elorri. Kepa Errasti antzezlanaren egileagaz, Ane Pikaza eta Ainara Ortega jardungo dira aktore lanetan, eta Getari Etxegarai da antzezlaneko zuzendaria. Hil berri zaien amonaren omenaldia prestatzen dabilzan neba-arrebak dira antzezlaneko protagonistak.

Antzerkia

:: BERRIZ

MAIATZAREN 26an

19:00etan, Txintxaun Kolektiboaren 'Apustua', Kultur Etxean.

:: DURANGO

MAIATZAREN 26an

18:00etan, 'Nunca es tarde', Gernikako Gure Arbola Zaharra taldearen eskutik, San Agustin kulturgunean.

MAIATZAREN 27an eta 28an

19:00etan, 'No hay mal que por bien no venga', Gora Ta Gora taldearen eskutik, San Agustin kulturgunean.

:: ELORRIO

MAIATZAREN 26an

22:00etan, Mami Lebrun, Arriolan.

EKAINAREN 2an

22:00etan, 'Dudas razonables', Arriolan.

:: ZORNOTZA

EKAINAREN 2an

21:00etan, Antzerki tailerraren emanaldia, Zornotza Aretoa.

Berbalidia

:: DURANGO

MAIATZAREN 31n

20:00etan, Alex Txikon, Plateruenean.

EKAINAREN 1ean

19:00etan, Juan Antonio Quirosen '¿Qué es un yacimiento arqueológico?', Museoan.

:: MALLABIA

MAIATZAREN 30ean

16:30ean, Eneko Mallagaray fisioterapeutaren 'Adinean aurrera eta osasuntsu' berbalidia, jubiletxean.

EKAINAREN 1ean

19:00etan, Ander Izagirre eta Juan Carlos Andres Mallabiko anfibio eta narrastiez, Kontzejuzarren.



Jaialdia

:: ZALDIBAR (Ezgaifasun Eguna)

MAIATZAREN 27an

09:30ean, Zaldia eta Geu Be-ren arteko futbol partida, Solobarria futbol-zelaian.

11:00etan, umeendako tailerrak, jolasak eta zirkuitu egokituak, eskolan.

13:00etan, gimnasia ritmiko, flamenko eta euskal dantza erakustaldiak, kiroldegian.

14:30ean, bazkari herrikoia.

17:00etan, Gau Argi erromeria.

19:00etan, Taberna ibiltaria.



Musika

:: DURANGO

EKAINAREN 2an

22:30ean, Muted, Plateruenean.



Euskal Astea

:: DURANGO

MAIATZAREN 26an

19:30ean, VIII. Peter Memorialaren esku pilota jaialdiko final-laurdenak, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

MAIATZAREN 27an

12:00etan, kalejira Jose Maria Anpuero euskal ekintzailea oroitzeko.

13:00etan, Jose Maria Anpueroren omenezko plaka desestaltzea, Pinondoko lorategian.

18:00etan, XVI. zesta-punta txapelketako partidak, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

20:00etan, organo, dultzaina eta txistu kontzertua, Andra Marian.

20:00etan, 'Eingo al deu?' antzezlanaren estreinaldia, Plateruenean.

MAIATZAREN 28an

12:00etan, XVI. zesta-punta txapelketako partidak, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

12:15ean, Tabira musika bandaren eta Elgoibarko gaiteroen kalejira.

13:00etan, Tabira musika banda eta Elgoibarko gaiteroak, Andra Marian.

EKAINAREN 1ean

09:30ean, Itsasoko kirol parkea LHko 3. zikloko ikasleentzat, Ezkurdin.

EKAINAREN 2an

19:30ean, VIII. Peter Memorialaren esku pilota jaialdiko finalerdiak, Ezkurdi Jai Alai.



Erakusketa

:: DURANGO

MAIATZAREN ZEHAR

Ageda lbarraren margolanak, Napozt tabernan.

Helena Azkarragaren 'Bertan', Artekan.

EKAINAREN 3ra arte

Gervasio Sanchezen eta Mónica Bernaberen 'Mujeres. Afganistan' argazki erakusketa, Andragunean.

EKAINAREN 4ra arte

'Picasso, Durangotik Guernicara', Museoan.

EKAINAREN 11ra arte

'Kanpai joka' erakusketa, Museoan.

EKAINAREN 16ra arte

Eñaut Aiertzaguenaren 'Mundua irribarrez begiak irekita sentitzeko' erakusketa, Ibaizabal ikastolako tabernan.

:: ELORRIO

MAIATZAREN 31ra arte

Santiago Yanizen 'Bizkaia, izadi sublimea', Iturrin.

:: ZORNOTZA

MAIATZAREN

Dantza jantzien erakusketa, Zelaieta zentroan.

Jaiak

:: BERRIZ (Andikoa)

MAIATZAREN 27an

Iluntzean, Donien Atxa jasotzea.

20:00etan, Erramun Martikorena, ermitan.

MAIATZAREN 28an

10:00etan, ganadu erakusketa.

11:00etan, meza nagusia.

11:15ean, Iremiñeren saioa.

12:00etan, Berrizko bertso eskolako gazteen saioa.


17:00etan, Kalabazan ludoteka.

18:00etan, Mirari eta Lutxurdioren erromeria.

20:00etan, Bolo joko txapelketa.

EKAINAREN 3an

Gauean, auzo afaria bertsolari eta trikitilariekin.



ZINEMA

:: DURANGO ZUGAZA

Piratas del Caribe: La venganza de Salazar 3D

- barikua 26: 19:30
- zapatua 27: 17:00-22:00
- domeka 28: 18:30
- astelehena 29: 18:30
- eguaztena 31: 19:30

Piratas del Caribe: La venganza de Salazar

- barikua 26: 19:00-22:00
- zapatua 27: 16:30-19:30-22:30
- domeka 28: 17:30-20:30
- astelehena 29: 18:30-21:00
- martitzena 30: 20:00

Entre los dos

- barikua 26: 19:00-22:00
- zapatua 27: 18:30-20:30
- domeka 28: 18:00-21:00
- astelehena 29: 18:30-21:00
- martitzena 30: 20:00
- eguaztena 31: 20:00

El caso Sloane

- barikua 26: 22:00
- zapatua 27: 19:30-22:30
- domeka 28: 20:30
- astelehena 29: 18:30
- martitzena 30: 20:00
- eguaztena 31: 20:00

Dos colegas al rescate

- zapatua 27: 16:30
- domeka 28: 16:30

:: ELORRIO ARRIOLA

Felices sueños

- zapatua 27: 22:00
- domeka 28: 20:00
- astelehena 29: 20:00

:: ZORNOTZA ARETOA

Piratas del Caribe: La venganza de Salazar

- barikua 26: 22:00
- zapatua 27: 19:30-22:00
- domeka 28: 17:00-20:00
- astelehena 29: 20:15

>ESKELA



Iratxe Irazola Arieta-Araunabeña
Ekain eta Irairen ama

*Zuk emandakoa gurekin gelditzen da betirako.
Ez zaitugu ahaztuko.*

Kurutziaga Ikastolako LH1eko familiak

>BOTIKAK

- BARIKUA, 26 · 09:00-09:00**
Mugica Andra Maria 9 - Durango
Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza
 09:00-22:00
Sanchez, Miren Itziar Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño
Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
- ZAPATUA, 27 · 09:00-09:00**
Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza
 09:00-13:30
Navarro Artekalea 6 - Durango
Mugica Andra Maria 9 - Durango
Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango
Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango
De Diego Intxaurrondo 22. - Durango
Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango
Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango
Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango
Eguren, Isabel Trañabarren 15 - Abadiño
Jaio-Olabarrieta Errekakale 6 - Elorrio
Bartolome Gabiola 2 - Berriz
Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza
Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
 09:00-22:00
Sanchez, Miren Itziar Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
- DOMEKA, 28 · 09:00-09:00**
Navarro Artekalea 6 - Durango
Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza
 09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

- ASTELEHENA, 29 · 09:00-09:00**
Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango
Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza
 09:00-22:00
Sanchez, Miren Itziar Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
- MARTITZENA, 30 · 09:00-09:00**
Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango
Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza
 09:00-22:00
Sanchez, Miren Itziar Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño
Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
- EGUAZTENA, 31 · 09:00-09:00**
De Diego Intxaurrondo 22. - Durango
Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza
 09:00-22:00
Sanchez, Miren Itziar Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño
Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
- EGUENA, 1 · 09:00-09:00**
Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango
Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza
 09:00-22:00
Sanchez, Miren Itziar Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza

>ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
 eguazteneko 14:00ak arteko epea



> **Julen** bere urtegunerako motorrak berotzen. Zorixonak Ondarrutik eta Matienatik. Ez ahaztu cava eta pastelak.



> Zorionak, **Noa**. Ondo pasau egune eta mosu handi bat familia denaren partez.



> Maiatzaren 28an 7 urte beteko ditu munduko neska politenak. Zorionak, **Marina**, eta muxu handi bat zure familiaren partez, potxola.




> Zorionak, **Peio**! Gure mutil jatorra eta alaia, segi horrela, jator-jator. Mosu potolo potoluek zure familia guztiaren partez.



> Ongi etorri, **Xare**. Mosu potolo bat familia osoaren partez, bereziki zure ahiztatxo Izaroren partez.









> Zorionak, **Amaia**! Mosu handi bat Anboto puntatik Elorriora. Ondo ondo ospatu zure eguna! Aurten ez dago bizkotxorik?



Ermodo, 11 · DURANGO - Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
 f Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Ekain (676 znb.)!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu Iurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

EGURALDIA

ZAPATUA	33° / 19°	
DOMEKA	29° / 15°	
ASTELEHENA	20° / 13°	
MARTITZENA	21° / 11°	
EGUAZTENA	24° / 13°	
EGUENA	21° / 13°	



Anbotoren lagunak
 Lekuan lekuko lagunak

Anbotoren lagunak
 Unamunzaga-Etxebarria hortz klinikak emandako hortz eskuila elektrikoa zozkatuko dugu Anbotoren lagunen artean. Zorte on!



Aquarium-eko sarreren irabazleak

- Gaizka Zabarte ·
- Andoni Urzelai ·
- Ibai Narbaiza ·
- Begoña Zarate ·
- Karmelo Angiozar ·

ZORIONAK!

clínica dental hortz klinika
 b. unamunzaga e. etxebarría

Tel.: 946 816 558 · www.anboto.org · lagunak@anboto.org

“Euskal Herriaren eredu kultural eta sozialak jakingura sortu dit beti”

Sardinian Euskal Herriarekiko kidetasun handia dagoela dio Abadiñon bizi den Elena Gabriele

> AKUILUA Aitziber Basauri
Sardiniak eta Euskal Herriak badute antzekotasunik. Hala dio azken bost urteetan Abadiñon bizi den Elena Gabriele sardiniarrak. Hala ere, familiaren eta lagunaren falta sumatzen du, eta baita Sardinian “mediterraneo usainarena” ere. Urtean birritan joaten saiatzen da.

Zerk ekarri zaitu Durangaldera?

Euskal Herriarekiko kidetasun handia dago Sardinian eta beti izan ditut jakingura eta gogoia etortzeko. Bikotekidea ezagutuen ge-

ro, Kordobakoa bera, eta, biok etorri ginen. Aurretik, urte eta erdi egin genuen Costa Bravan.

Ezeren falta sumatzen duzu?
Lehenik eta behin, familiarena. Baita Sardinian lagunena ere. Klimarena, hango usainarena... Hara noanean halako usain berezia nabaritzen dut, mediterraneo usaina.

Itsasoa, hango hondartzak. Beti dut itzuli behar hori. Ahal badut urtean birritan joaten naiz.



Sardinia eta Euskal Herria. Antzekotasunik ikusten diezu?

Bai, eta hemen bizi naizenetik izaeran ere nabaritu dut. Sardinia irla bat da, eta irlak leku bakartuak dira. Jendea itxia izateko joera dago, hasieran behintzat. Kanpotik datorrenentzat apur bat gogorra da hori. Hori bai, behin ezagututa atea zabaltzen dizute, bizi osorako. Euskal Herriaren eredu kultural eta sozialak jakingura sortu dit beti. Ohiturak, hizkuntza... mantendu eta zaindu dituzue. Guk ez dugu zorte hori izan. Garatutako hizkuntza eta kultur politikek ez dute hori bermatu.

Orduan, berdintsuak gara?

Harreman sozialetan, zerbait gauzatan, bai. Orain, badaukadala lekua esan dezaket, hemen egon gura dudala. Baina hasieran gogorra izan zen. Batukadari eta boleibolari esker, taldeetan sartzen eta lagunak egiten hasi nintzen.

Batukadan ari zara?

Bai, Durangoko Batukada Feministan. Bost urte dararamatzat. Asko lagundu dit harremanak egiteko.

Boleibolean jokatzen duzu.

Bai, beti jokatu dut, eta saiatu arren hemen ez nuen talderik topatzen. Baina orain urte bi jakin nuen bazela bat Ibaizabal ikastolan, eta haiekin hasi nintzen. Oso pozik.

Euskal Herrian zer egin zaitzu deigarriena?

Heldu nintzenez, zein berdea den inguru hau. Sardi-

nia askoz lehorragoa da. Txikitatik mendirako duzuen zaletasunak ere harritu ninduen, eta jaietan adin guztietarako ekintzak egoteak ere bai, Bilboko Aste Nagusian, adibidez. Asko zaintzen da hori, eta oso garrantzitsua deritzot; asko gustatu zait. Oro har, gauza askok eman didate atentzia. Egun euritsu eta ilun batean heldu nintzen (barrez), baina biharamunean garbi-barbi ikusten zen inguru dena. Zoragarria.

Euskara ikasterik izan duzu?

Horretan nabil. Hizkuntza eskolan nabil, baina zaila egiten zait lanagaz bateratzea. Dena den, gogo handia dut ikasteko. Zorionez, euskaldun asko ditut inguruan, eta eskoletara joaterik ez badut, haiekin ikasten saiatzen naiz. Ez dut oraindik hitz egiten, baina badut aukera entzuteko eta belarria fintzeko.

Zaila da euskara?

Bai. Latinetik ez etortzera eta egitura propioa izatera, apur bat aldrebesa egiten zait (barrez). Maila fonetikoan ez da hain zaila; italieraz eta sardinieraz baditugu antzeko hitz batzuk. Baina esaldiak egitura-terako-eta, zaila da.

Italierarekiko ikusminik badugu hemen?

Gutxi. Ezagutu ditut pasioagatik ikasten dutenak, opera gogoko dutelako edo Italiara oporretan doazelako sakondu gura dutenak. Baina gehienek Erasmussegaz ikastera doazelako edo lanean behar dutelako ikasten dute. Aldea dago ingelesagaz, frantsesagaz edo alemanagaz.

LAUHORTZA

PAUL BUSTINDUI REVUELTA

Kazetaria



Marea berdea

“Ametsak berdeak direlako” zioten Zornotza Saskibalo Taldeak orain dela urtebete salgai jarri zituen pultserek. Aurtengo denboraldian parte hartzeko aurrekontua itxi beharra zegoen, eta egun gutxiren bueltan pultsera guztiak saldu ziren. Azken unean ligako inskripzioa egin eta taldea eraberritu behar izan zuen baldintza ekonomikoengatik. Denboraldi hasiera Gernikan hasi behar izan zuten, Larrea kiroldegiko zoruaren egondako arazoengatik. Eta hilabete batzuen bueltan, plantillako izarra zen Gantek taldea utzi zuten maila handiagoko erronken bila.

Mundu osoko jokalaria arakatu ditu Mikel Garitanoandiak, euro bat xahutzeko aukera ematen ez duten aurrekontu batekin talde lehiakor bat osatzeko. Zailtasun horiei guztiari aurre egitea marka da gero, baina, gainera, iguera faserako sailkatu zen taldea. Hori gutxi balitz, bi kanporaketa irabazi dituzte kantxa faktorea aurka izanik. Saskibaloiko bigarren maila den Urrezko LEB mailara igotzeko bide luzearen azken kanporaketa bakarrik falta zaio Ametx Zornotzari.

Ilusioz gainezka dauden entrenatzaile, jokalaria eta klubeko bestelako langile guztiengatik, martitzen batean Granadara autobusean joan-etorriko bidaiari zutenengatik, Larrean urtero hutsik egin ez duen marea berdeagatik eta Zornotzako herri osoarengatik orain arte egin dutena historikoa da. Gaur eta igandean Larrea lepo bete behar du. Gogor saiatzean ametsak egia bihurtzen direla erakutsi diguzue. Azken urratsa falta da, ez dezala inork Zornotza amets honetatik esnatu.



www.iurretalhi.eus
idazkaritza@iurretalhi.eus
Tel.: 944 66 88 00

ZIKLOAK

GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze Lan Elektronikoa
- Produkzioaren Programazioa
- Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena

AURREMATRIKULA
Ekainaren 5etik 16ra,
biak barne

MATRIKULA
Uztailaren 13tik 19ra,
biak barne

Euskaraz ikasi eta lan egin!

ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta

